



Jardueren Oroitidazkia 2006

SABINO ARANA FUNDAZIOA
Bilbo, 2006ko urtarrila

AURKIBIDEA

- 1.- EUSKADI-GALIZA-CATALUNYA EGITARAU BEREZIA.
 - 1.1.- GALEUSCAT ELKARTE MINTZATOKIAREN AURKEZPENA MADRILEN
 - 1.2.- DEBATEA: BAKE PROZESUA, ETORKIZUNERAKO ITXAROPENA EUSKADIRENTZAT
 - 1.3.- “GRANDES IMPERIOS, PEQUEÑAS NACIONES” LIBURUAREN AURKEZPENA
- 2.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA
- 3.- ARGITALPENAK
- 4.- HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 5.- LURRALDE IRASKUNDEAK
 - 5.1.- XABIER DE LANDABURU IRASKUNDEA
 - 5.2.- LUIS DE ELEIZALDE IRASKUNDEA
 - 5.3.- UZTURRE PRESTAKUNTZA IRASKUNDEA
- 6.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZATOKIA
 - MINTEGIAK
 - HITZALDIAK
- 7.- GAZTERIA
- 8.- JOLAS ETA KULTUR JARDUERAK
- 9.- EUSKARA SUSTATZEKO EGITARAUAK
 - 9.1.- Bertso paperen lehiaketa
 - 9.2.- Erakusketa: Habla en cristiano
 - 9.3.- Erakusketa: Lauaxeta: lau haize, hamaika begirada
- 10.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIOEKIKO HARREMANAK
- 11.-EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA
- 12.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 13.- AGIRITEGIAREN ETA MUSEOAREN DOHAINTZA-EMAILEAK
- 14.- 2006KO JARDUEREN EGUTEGIA

HITZAURREA

Sabino Arana Fundazioarentzat 2006ak mugarri asko ekarri ditu. 18 urtean hainbat egoitzatan egon ondoren, Fundazioak azkenengo egoitza, Sabin Etxean (Ibañez de Bilbao, 16) kokatua, utzi eta bere kokapen berrira lekualdatu da: Bilboko Kale Nagusia 29.

Gainera, aldaketa geure sozietate-izena egokitzeko ere baliatu genuen eta oraintsu arte Sabino Arana Fundazioa izan denari harrezkero Sabino Arana Fundazioa deritzo.

Zerbitzu hobe eta ugariago eskaintzea helburu egindako korporazio-estrategiaren aldaketa horren barruan, gure egitasmoan geure zerbitzuetara sartzeko modua erabat birdiseinatzea ere jasotzen zen.

Horretarako, geure web orria eguneratu eta birdiseinatu dugu eta newsletter edo buletin elektronikoa bat abian ipini dugu eta Mezu@ izena ipini diogu. Informaziorako produktu horiek biek Fundazioaren jarduerari buruzko informazio zehatza eta antolatua eskainiko dute eta sortzen joango diren balio erantsi handiko zerbitzuetara sartzeko atea izango da. Hori guztia, Sabino Arana Fundazioa XXI. mendeko beste fundazioen eta erakundeen artean eduki behar duen lekuan kokatzea xede.

Web orri berriak jendearentzako sarbide orokor bat eta sarbide pribatu bat ditu. Jendearentzako sarbide orokorrean prentsa-oharrak, Museoaren gaineko eta Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren gaineko informazioa, sustapen eta informazio gaiak, agendako albisteak etab. jasotzen dira.

Pribatuan, lagun ongileek bakarrik erabili dezaketen sarbidean, efemerideen berri eta oroipen historikoari buruzko tailerren berri ematen da, Fundazioaren jardueran sorturiko dokumentaziorako eta materialetarako sarbidea eskaintzen da, hots: mintegiak, mahainguruak, liburu-aurkezpenak, edo HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren zenbakietarako, eta beste.

Newsletter delakoaren helburua Sabino Arana Fundazioaren eta lagun ongileen eta lagunaren arteko harremanak eguneratzea eta dinamizatzea da, egindako nahiz egin asmo diren jarduera guztien berri emanez haiei, baia halaber Museoaren eta Agiritegiaren gaineko albisteak eta Fundazioak daukan agiri-funts osorako aukeratze-sarbidea.

Sabino Arana Fundazioa, gainera, gaur egun beste zerbitzu batzuk diseinatzen ere lan egiten ari da, beraren kultura-eskaintza areagotuko duten beste zerbitzu batzuk, alegia.

1.- EUSKADI-GALIZA-CATALUNYA EGITARAU BEREZIA

1.1.- TRIBUNA GALEUSCAT ELKARTEAREN AURKEZPENA MADRILEN

Joan den otsailaren 15ean Tribuna Galeuscat elkarteak aurkeztu zen Madrilen. Euzko Alderdi jeltzaleak (EAJ), Convergencia i Uni6n (CIU) eta Bloque Nacionalista Galegoak (BNG) eratu dutelarik, haren helburua da, mintzatoki bat sustatzea, bertatik, eta elkar hartuta, Estatu espainolaren errealitate plurinazionala aintzatestea posible egin dezakeen beste politika-kultura bat bultzatzeko.

Tribuna Galeuscat “orain nagusi den estatu-ereduarekiko aliantza alternatibo” tzat sortu da eta haren helburua da “Estatu espainola egituratzeko moduari buruzko beste ikuspuntu bat eskaintzea”. Horrelaxe dio Elkarteko mahaiburu Juan M^a Atutxak, zeinek, gainera, uste baitu ezen “hiru nazio batuz osatutako mota honetako tribunak egituratzeko adibidetzat balio duela, euren helburuak aldezteko indarkeria aukeratu dutenentzat.



Aurkezpen-ekitaldian Juan M^a Atutxak, gainera, honako ñabardura egin zuen: “ez gatoz nire horretatik zer planteatzera, gure horretatik zer baino”, eta adierazi zuen, “ausartegia eta ameslaria izatea izango litzatekeela pentsatzea tribuna honek euskal arazoa konponduko duela, baina nabaria da bakearen bidetik laguntzen ari garela.

Juan M^a Atutxaren alboan Antoni Vives (CiU) izango da zuzendaria eta Francisco Jorquera (BNG), elkarte berriko idazkaria.

Tribuna Galeuscat-en aurkezpena beste ekitaldi politiko batetik egun gutxira egin zen, hots: CiUk, EAJ-PNVk eta BNGk, estatutu-debateak sortutako “bidegurutze-unea” dela bitartean, kataluniar galiziar eta euskal nazioak ezagutuko dituen Estatu plurinazional bat ezartzeko konpromisoa berretsi zuen ekitaldi, halaber, Madrilen egina. Elkarraldi hartan, Josu Jon Imaz EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarreko lehendakariak eta Josune Ariztondo idazkariak gain, baita parte hartu zuten ere Artur Más Convergencia Democrática de Catalunyaako idazkari nagusiak, Josep Maria Pelegrí Uni6n Democrática de Catalunyaako idazkari nagusiak eta Anxo Quintana Bloque Nacionalista Gallegoko eledun nazionalak.

Euskal, galiziar eta kataluniar indar abertzaleen aliantza hori aspalditik dator. Galeuscat-en aurrekaria 1923ko Aliantza Hirukoitza da, gero 1933an berrituko zena Konpostelako Itunarekin 1998ko Bartzelonako Adierazpenarekin berritua. Madrilen egindako azken adierazpen politikoak helburu batzuk eta ekintza-plan bat

berrestea ekarri du, hain zuzen ere, EAJ-PNVk, CiUk eta BNGk ordezkatzeko duten "nazionalismo positiboa sozializatzea" duela xede.

Tribuna Galeuscat-en asmoa, bada, Galiziako, Euskadiko eta Kataluniako, Estatuko eta Europako gizarte eta politika bizitzan presente egotea eta elkarrizketaren kultura finkatzea da.

Galiziatik, Kataluniatik edo Euskaditik gure gaur egungo esparru politikoa aldatzea planteatzen dugunean, hori egiten dugu, Espainiari buruz gaur egun nagusi den ikusmoldea oinarritzen den zentralismo jakobinoa baino modernoagoa eta eraginkorragoa deritzagun antolaketa politikorako sistema bat defenditzeko.

Horrexegatik, Tribuna Galeuscat-ek sareko egiturak erradialak baino eraginkorragoak eta sortzaileagoak direla eta elkartasuna, gizarte-justizia eta aberastasuna sorrarazteko gaitasun handiagoa dutela defendituko du, beste kultura politiko batzuetan ondo dabilen ideia federalkor bat, anglosaxoia edo germanikoa bezalako, alegia. Kultur eta hizkuntza dibertsitatea aldeztu duen antolaera bat, boterea eta baliabideak modu eraginkorragoan, demokratikoagoan banatzen dituen lurraldeen artean eta egitura zentralizatuak baino areago sustatzen dituen erantzukizuna eta sormena.



Helburu horiek lortzen laguntzearen, Tribuna Galeuscat-ek debateak sustatu nahi ditu hedabide intelektualetan eta komunikabide espainoletan nahiz europarretan; nahi ditu, Estatu espainoleko eta gainerako Europako eragile eta arizale politikoeekin bizipenak eta ezagutzak elkartrukatu; nahi du, politikaren eta gizartearen arteko elkarrizketa sustatu, beste ikuspegi horretan oinarrituta, eta, halaber, kontaktuak ezarri, helburu berorrek gaian interesatutako fundazioen eta erakundeen artean.

1.2.- DEBATEA: "BAKE PROZESUA, EUSKADIREN ETORKIZUNERAKO ITXAROPENA"

Joan den maiatzaren 23an debate bat egin zen Euskadiren etorkizuna hartuta mintzagai. "Gaurko Euskadiren errealitateak eta itxaropenak" izenburupean parte

hartu zuten: Trías Fargas, Fundazioko presidente Vicenç Villatorok; Daniel Innerarity filosofia irakasleak, eta Euzko Alderdi Jeltzalearen Euzkadi Buru Batzarreko idazkari Josune Ariztondok. Villatorok zuzendutako debateak zalantzak argitzeko eta, lehenengo eskuko informazioa lortzeko eta txostengile bien analisiak eta proposamenak entzuteko balio izan zuen.

Horrenbestez, Josune Ariztondok EAJk bere gain hartutako konpromiso bikoitza gogoratu du, hau da, ez eragozte eta ez gainezartzea: Gernikako Estatututik gorako sostenguak dituen akordiorik ez eragozte, eta hura baino sostengu txikiagoa lortzen duen akordiorik ez gainezartzea. Ariztondok, bestalde, baita defenditu zuen ere, indarkeria handien izan den aldiengatik ere, edo gizartea hausteko saioengatik ere, abertzaletasunak beti sustatu duela kudeaketa positiboa eta aurrerazalea.



Innerarity, bere aldetik, gizarte-sostengu zabaleko akordio politikoa jadestearen alde agertu zen.

Horixe izan zen Tribuna Galeuscat elkartearen lehenengo ekitaldia Bartzelonan, Ramon Trias Fargas Fundazioarekin batera antolatuta eta Juan Maria Atutxa elkarteko mahaiburua ere bertan zela.

1.3.- LIBURU AURKEZPENA: “GRANDES IMPERIOS, PEQUEÑAS NACIONES”, JUAN M^a ATUTXAREN ETA ENRIC JULIANAREN ESKUTIK

Josep M. Colomer da Fundació Trias Fargas 2005 saria irabazi zuen lan horren egilea. Ekitaldia uztailaren 5ean, asteazkenarekin, izan zen Madrileko Espai Cultural Blanquernan (Alcalá, 44).

Josep M. Colomer Zientzia Politikari buruzko Ikerketako irakaslea da Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusian eta Universitat Pompeu Fabrako Ekonomia sailean.

Haren "Grandes imperios, pequeñas naciones" lanak Fundació Ramon Trias Fargas 2005 Saria lortu zuen. Lanaren zorrotasunaz eta barruan dakartzan informazio ugariak eta datu egiaztatuez gain, nabarmentzekoa da, nazio txikien autogobernu handiagoaren aldeko "toki"-argudioez haraindi, egileak eskari hori indartzen duen nazioarteko ikuspuntu bat ere ekarri duela. Horrenbestez, "Grandes imperios, pequeñas naciones" liburuak nazioarteko politikako argudioak, ekonomikoak, eragingarritasunezkoak eta kalitate demokratiko hobeak dutenak eransten ditu, nazio txikien existentzia eta garapena justifikatzeko.

2.- BEKAK ETA IKERKETAREN SUSTAPENA

*** EAJ-REN FRANKISMOAREN GARAIKO ALDIZKARIAK**

Egitasmo honen helburua, eginbidean, Euzko Alderdi Jeltzaleak frankismoaren garaian atera zituen aldizkako argitalpenak aztertzea da: haien deskribapena egin, bilakaera behatu, jeltzaleen antolaketa-bilbean zuten eginkizuna aztertu eta euskal abertzaletasunaren ibilbidea ezagutzeko iturri historiko gisa duten garrantzia ikusi.

Horretarako, 1937 hartu da abiapuntutzat, urte horretan agertu baitzen erbesteko lehenengo agerkari jeltzalea -Aberri Aldez (Mexiko)-, eta muga-urtetzat, 1975, urte horretan hasi baitzen trantsizioaren etapa politiko berria. Azterlanak, orobat, kontuan ditu, bai Penintsula aldeko Euskal Herrian klandestinitatean argitaratutako aldizkako agerkariak, bai Amerikako eta Europako erbestaldian argitaratu zirenak.

Ikerketa-egitasmo hau gauzatzeko, besteak beste, Abertzaletasunaren Agiritegi Historikoak erbestaldiko prentsa jeltzaleaz daukan agiri-funts garrantzitsua erabiliko da. Horrenbestez, gainera, Sabino Arana Fundazioaren helburuetako bat betetzen lagunduko da: Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak gordeta dituen agiri-funtsak erabiltzea eta ezagutaraztea.

*** UMEEN EBAKUAZIOAREN LXX. URTEURRENA: INGALATERRA**

1936-1939ko gerran Ingalaterrara ebakuazioan eroandako umeen erbestaldiaz diharduen ikerlan bat egiten ari gara; 2008an ateratzea da helburua.

Ebakuatuen elkarteek, zeintzuek Euskadin zein Londresen funtzionatzen duten, euren interesa agertu dute halako argitalpen batekin.

Gure ingurunean dauden agiri-aukerek ekarri dute ikerlan horren gertakuntzalanari ekitea; ikerketaren emaitza haur-erbestaldiari eta haiekin joan ziren pertsona helduei buruzko beste lan bat izango da.

Horretarako, lan trinkoa egiten ari dira ohiko agiri-iturrietan, zeintzuk ahozko, iturrien, hemerografi iturrien eta besteren gaineko azterketekin osatuko baitira, gertakariari bere alderdi guztietatik oratzea helburu.

*** AGIRRE-IRUJO POSTA-TRUKEA**

Don Manuel Irujo Olló, euskal abertzaletasunaren pertsona nabarmen nagusietako bat, hil zenetik 25 urte igaro direla gogoratzeko eta, berriki (zehazki urte bi), lehenengo euskal lehendakariaren jaiotzaren mendeurrena bete delarik, 2006an ikerketa-lan bat egin da, pertsona nabarmen bi haiek 1939 eta 1945 bitartean izan zuten posta-trukearen funtsezkoena biltzea helburu.

Azterlan horren xedea nagusiki da, beraien hitzez eta idazkiez agertzea bi biak gauzatzen saiatu ziren eta euren borrokarekin aldeztu zituzten ideia politikoak eta sozialak. Horretarako, aipatutako urteetan Agirrek eta Irujok elkarri igorri zizkioten gutunak eta txostenak biltzen ari dira; horien osagarri, beste buruzagi abertzale bien beste idazki batzuk erantsiko dira, zehazki bizikide izan zituzten beste pertsona nabarmen historiko batzuei bidalitakoak. Horrenbestez, Agirre eta Irujoren euren idazkien gain, Indalecio Prieto, Alfonso R. Castelao, Jesus Maria Leizaola, Eliodoro de la Torre, Manu de la Sota eta beste batzuen idazkiak ere sartuko dira.

*** HOMBRE LIBRE SIN PATRIA LIBRE. MEMORIAS DE LA RESISTENCIA VASCA (1936-1980). JOKIN INZA.**

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegi Historikoan euskal abertzaletasunaren agiri-ondarea artatzeko egiten ari garen lanean, batzuetan agirien artean gure aurretik izan diren beste batzuek oso inguruabar desberdinetan idatzitako lekukotasunak, oroipenak eta gomutak berreskuratzea lortzen dugu. Xedea da, ahanzturatik berreskuratzea Euskal Herriaren askatasunaren eta biziraupenaren aldeko borrokan gure aurretik izan diren askoren bizipenak eta esperientziak.

Ikerketa-lan horietako bakoitzaren emaitza argitalpen bat izango da “Hamaika oroimen askatasunarentzat” bildumaren barruan.

Jose Antonio Durañonaren oroitzapenekin hasi ginen; horien atzetik Jokin Inzarenak etorri ziren; lan horrek dagoeneko 2006an argitaratuta dagoen “Hombre libre sin patria libre. Memorias desde la Resistencia Vasca (1936-1980). Jokin Intza” liburua ekarri zuen.

*** GASTU PUBLIKOAREN ORIENTAZIO ESTRATEGIKOAK**

Sabino Arana Fundazioak ikerketa/azterketa lan bat eskatu zion Ikeiri; helburua, inguruneko europar sozietateei, gastu publikoaz denaz bezainbatean, gaur egun eta etorkizunerako ematen zaien posizioa aztertzea. Ildo bitatik aurreratzea zen kontua:

- Bateko, ekonomi eta gizarte arloan sozietate horiek erreferentziaz kokatzen dituzten aldagaien ezaugarriak ikustea.

- Besteko, gaia horretaz Euskadiko Autonomia Erkidegoak duen posizioa.

Dokumentuak gaur egungo egoeraren panoramika bat agertzen du, herrialdeak euren artean konparatzea ahalbidetzen duten adierazleen bitartez, eta Europaren esparruan aztertzen ari diren gastu-orientazioekin osatzen da.

3.- ARGITALPENAK

*** “CIEN MOMENTOS PARA LA LIBERTAD. MEMORIAS DE UN SECRETARIO DE JOSÉ ANTONIO AGIRRE (1936-1949)” LIBURUAREN AURKEZPENA**

Jose Antonio Durañonaren “*Cien momentos para libertad. Memorias de un secretario de Jose Antonio Agirre (1936-1949)*” liburua argitaratuz, Sabino Arana Fundazioak zenbait argitalpenek osatuko duten “*Hamaika oroimen askatasunerantz*” izeneko liburu-bildumari ekin zion; bildumaren asmoa da,



Euskadik bizirik irauteko eta haren askatasunaren alde dena eman zuten euskal abertzale askok bizi izandako esperientzia orain artean ezezagunak ahanzturatik berreskuratzea.

Erbestean, Parisen, Agirre lehendakariaren idazkaria izan zen Jose Antonio Durañonaren lehenengo obra hau, oroipen-liburu bat baino giro-kronika luze bat da, hain zuzen ere Durañonak berak gorazarre egiten dion belaunaldi

baten sasoiari buruzkoa, zeinetan milaka familiak egoera ezin larriagoetan bizirik irauteko eta ideia demokratikoak aldezteza ez beste ezein delitirengatik jasan zituzten zailtasunak kontatzen baititu.

Lana Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan aurkeztu zuten martxoaren 9an; ekitaldiko partehartzaileak izan ziren: Iñaki Anasagasti; Iñaki Durañona, J.A. Durañonaren anaia eta Sabindiar Batzaren sortzailea, eta Juan M^a Atutxa Sabino Arana Fundazioko lehendakariak.

*** “HOMBRE LIBRE SIN PATRIA LIBRE. MEMORIAS DESDE LA RESISTENCIA VASCA (1936-1980). JOKIN INZA”**



Sabino Arana Fundazioak argitaratutako Jokin Intzaren “*Hombre libre sin patria libre. Memorias desde la Resistencia Vasca (1936-1980)*” liburua “*Hamaika oroimen askatasunerantz*” izeneko liburu-bildumako bigarren argitalpena da; bilduma hori eginez Fundazioaren asmoa da, Euskadik bizirik irauteko eta haren askatasunaren alde dena eman zuten euskal abertzale askoren bizipenak eta esperientziak ahanzturatik berreskuratzea.

Eta borrokalar horien artean leku nabarmen eta berezia du Jokin Intzak, oroitzen horien protagonistak, zein Gerra Zibila eta diktadura frankista jasan behar izan zituen belaunaldi oso baten eredu berebizikoa baita.

Liburu horren orrialdeetan zehar, “El Gordo”, hala baitzeritzaten xeratsu, Herri gisa ezaugarri eta bereizgarri izan ditugun dohain nagusien adibide gisa agertzen zaigu: zintzotasuna, lanerako gogoia, seriotasuna eta, batez ere, iraupena.

Euskal kausari egin zion ekarpena hain garrantzitsua izan zen ezen, urterik zailenetan erbesteko Eusko Jaurlaritzarentzat diruzko laguntza eta euskarri nagusia izango zena lortu baitzuen..

*** “GALÍNDEZ: LA TUMBA ABIERTA. GUERRA, EXILIO Y FRUSTRACIÓN” LIBURUAREN AURKEZPENA NEW YORKEN ETA BILBON**

Jesus Galindez Suarez erbestaldiko Euzko Jaurlaritzaren ordezkariaren bahiketaren eta erailketaren 50. urteurrena oroitzea xede, New Yorkeko Euskal Etxeak, Columbiako Unibertsitateak eta Sabino Arana Fundazioak antolatutako ekitaldien barruan, urriaren 13an “Galíndez: la tumba abierta. Gerra, exilio y frustración” liburua aurkeztu zen aipatu Unibertsitatean. Iñaki Bernardo eta Iñaki Goigana historialariek idatzitako lan horrek, mundu osoan zehar “euskal kausa” aldeztu zuen askotarako euskaldun handinahi eta bizkor honen historia kontatzen du.

Jesus Galindez Suarez 1956ko martxoaren 12an desagertu zen New Yorkeko Bosgarren Etorbidean zeukan apartamentutik. Rafael Leonidas Trujillo diktadore dominikarraren aginduz bahitu zutelarik, ziur asko Dominikar Errepublikan torturatu eta asasinatu zuten.

Lanak, bere garaian, 1992an, Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuenaren berrargitalpena den liburu honek, euskal belaunaldi baten historia ere kontatzen du, hain zuzen ere, Jose Antonio Agirre, lehenengo euskal lehendakaria, buru, 1936tik 60ko hamarkadara arte Francoren erregimena eraitsi eta Euskadin demokrazia berrezartzeko borrokatu zen belaunaldiarena.

Ekitaldian honako hauek parte hartu zuten: Andrea Bartoli, Columbiako Unibertsitateko irakaslea; Josu Legarreta, Eusko Jaurlaritzaren Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako zuzendaria; Irune Zuluaga, Sabino Arana Fundazioko zuzendaria; Iñaki Goigana, historialaria eta lanaren egile bietako bat; eta Gloria Totorikaguena, Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko zuzendaria.



Jesus de Galíndezi New Yorken egin zitzaion omenaldiko ekitaldiek jarraipena izan zuten urriaren 14an eta

15ean larunbata eta igandea, hurrenez hurren.

Zehazki, New Yorkeko Euskal Etxea ere, zeinen buru Itziar Albisu baita, liburu horren aurkezpenaren agertoki izan zen eta ondoren, jardunaldiaren osagarri gisa, musika-emanaldiak izan ziren Kepa Junkera trikitilariak eta Gaztelubide Abesbatza Elkartek eskainita, eta ekitaldia burutzeko, anaitasun-afaria Euskal Etxean. Hurrengo egunean, New Yorkeko gotzain laguntzaileak, monsinore Jose Iriondok, meza eman zuen Jesus Galindezen oroimenez.

Bilboko aurkezpena

Bizkaiko hiriburuan aurkezpena abenduaren 4an izan zen, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Ekitaldian EAJ-PNVren Bizkai Buru Batzarreko lehendakari Iñigo Urkulluk, Sabino Arana Fundazioko lehendakari Juan Maria Atutxak eta liburuaren egileek, Iñaki Bernardo e Iñaki Goiogana historialariek, parte hartu zuten, bertan zegoela, gainera, Flori Galindez, Euskal Ordezkararen iloba, ere. Iñaki Goioganak hitzaldi bat eman zuen Jesus Galindezen pentsamolde politikoa eta soziala hartuta mintzagai. Euskal Herriaren etorkizuna aurrerapenean, garapenean eta gizarteko behartsuenekiko elkartasunean ikusten zuen abertzale bat.

Jesus Galindezen desagertzearen 50. urteurrenaren ospakizun horretan are eta erakargarriagoa egiten da beraren ibilbide poliedrikoa, hain zuzen ere denboran bat egin duenean 36ko Gerraren hasieraren 70. urteurrenak ekarritako *galtzaileen* oroitzapena berreskuratzearekin eta Amnesty Internationalek berriro munduko desagertzeen eta giza eskubide urratzeen salaketak ipintzearekin.

*** ON MANUEL IRUJOREN “INSTITUCIONES JURÍDICAS VASCAS” LIBURUAREN AURKEZPENA.**

Urteroko Durangoko Liburu eta Disko Azoka egiten zelarik, Irujo Etxea Elkartarekin eta Txalaparta argitaletxearekin elkarlanean, On Manuel de Irujoren “Instituciones Jurídicas vascas” liburuaren berrargitalpena aurkeztu genuen.

Irujok konbultsioz jotako aro batean idatzi zuen liburua. Lehenengo argitalpena, Buenos Airesen (Argentina) eta Ekin argitaletxearen eskutik 1945ekoa da. Argitalpen horrek gehiago du Antropologiako tratatu batekin Zuzenbidearekin berarekin baino.



Aurkezpena, 2006ko abenduaren 7an, Euskaltzainburu eta hitzaurrearen egile Andres Urrutia Badiolak egin zuen.

4.- PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

Joan berri den 2006 urtean HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren beste lau zenbaki argitaratu dira. Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen aldizkari honek 2.500 ale banatzen ditu bere harpidedunek jasotzen dutenaren eta kiosko eta liburu-dendetan jendeari saltzen zaionaren artean.

19 zenbakia – Euskal hiritar berriak (martxoa)

20 zenbakia – Elkarrizketa eta gizarte-ituna (ekaina).

21 zenbakia – Ekonomia Itunaren beste erronka batzuk (urria)

Zenbaki berezia – Bake-prozesua gaur. Atzeraezinezko bihur dadin baldintzak (abendua).

Izenburu orokortzat “Euskal hiritar berriak” hartuta, HERMESen 19. zenbakiak Euskal Herrira etorritako immigrazioaren gaiari oratu zion. Horretarako, immigrazio-multzo handietara hurbiltzen da, ezagutzeko, alde batetik, herri horiek bakoitzak bere erresuman bizi duten errealitatea eta halaber, bestetik, Euskadira heltzean eta bertan finkatzean izan duten bizipena eta abegi egin dien herrialdean ezarri dituzten itzaropenak.

Zenbaki honetan kolaboratzaile izan dira, Rachid Raha “Le Monde Amazigh” egunkariaren editore eta Tamazigh Kultura Elkartearen sortzailea; Luis Eduardo Maldonado, Ekuadorreko Gizarte Ongizateko ministro ohi eta gaur egungo Nazio Indigenen Gobernu Eskolako eta Herri Politiketarako presidentea; Rosabel Argote, Santa Barbaran dagoen Kaliforniako Unibertsitateko Hizkuntza Hispanikoetan doktorea; Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko arduradun Castillo Suarez; eta EHUko Unibertsitateko Soziologia irakasle Pedro Albite, besteak beste.

Ondoren, 20. zenbakian, administrazioek, enpresek, sindikatuek eta GKEek EBeko gizarte, herritar eta ekonomi elkarrizketan betetzen duten eginkizuna eta kide gehiago sartzeak dakartzan erronkak aztertu ziren.

Horretarako, instituzioetako, enpresaren munduko eta gizarte-esparruko ordezkari garrantzitsu zenbaiten kolaborazioa izan zuen, hala nola: Anne-Marie Sigmund And., Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko (EEGK) presidentea; Joseba Azkarraga, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburua; Joxe Ramon Bengoetxea Oñatiko Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutuko Zuzendari Zientifikoa; edo Ezai Fundazioa..

Elkarrizketan Kepa Junkera bere musikaz eta gustuez mintzo zitzaigun, eta gogoeta egin ere bai Euskadik gaur egun bizi duen egoeraz.

Ekonomia Itunak dituen hainbat erronka funtsezkoen berri ematen zen 21. zenbakian. Goi mailako analisi bat eskaini zen, jakinaren gainean egon gaitezen,

euskal eta foru erkidegoen autogobernurako giltzarri bihurtu den itun horrek gain-gainean dituen arrisku eta gorabeheraz.

Figura hori birpiztu eta 25 urtera, Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburu ohi Pedro M^a Larreak, NUPEko Finantza eta Zerga Zuzenbideko katedradun Fernando de la Huchak, EHUko Historia Garaikideko irakasle Eduardo Alonsok eta Konstituzio Zuzenbideko irakasle eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendari Santiago Larrazabalek Ekonomia Itunak aurrean dituen etorkizuneko erronkak aztertzen dituzte agerkari honetan.

Beste alde batetik, Jordi Pujol Convergencia Democrática de Cataluñako lehendakari eta Generalitateko president ohiak elkarrizketan zioen ezen, *“kataluniar askoren helburua Parlamentek onetsi zuen Estatutek segitzen duela izaten”*. Zenbakia osatzeko, zenbait kolaborazio: Nuria Lopez de Gereñu Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburua; Fernando Plazaola fisikan doktorea; Felix Azurmendi EITB Nazioartekoko zuzendaria, eta Pako Sudupe Euskal Filologian doktorea.

Azkenik, abenduan, aldizkariaren zenbaki berezi bat argitaratu zen "Bake-prozesua gaur: atzerazinezko bihur dadin baldintzak" jardunaldian " (2006-XI-16) izan ziren hizlari nagusien txostenekin: Matteo Zuppi, Julian Hottinger, Roelf Meyer, Paddy Woodworth eta Daniel Innerarity.

5.- LURRALDE IRASKUNDEAK

Lurralde-iraskundeen bitartez egin ditugun jarduerak hurrengo hauek izan dira:

5.1.- Xabier de Landaburu iraskundea

*** HITZALDI SORTAK: “Ekonomia Ituna, euskal autogobernuaren oinarria”**

Sabino Arana Fundazioaren Xabier Landaburu Iraskundeak eta Eusko Ikaskuntzak hitzaldi-sorta bat antolatu zuten Gasteizen Euskal Ekonomia Ituna, Euskal Herriaren eskubide historikorik garrantzitsuenetako bat, berrezarri izanaren XXV. urteurrena ospatzeko.

Izenburu orokor gisa “Ekonomia Ituna, euskal autogobernuaren oinarria” zuen ekitaldi-sorta horren barruan hiru hitzaldi eskaini ziren, unibertsitate-katedradun eta gai horretako aditu nabarmenek parte hartuta. Hiru hitzaldiak Eusko Ikaskuntzaren hitzaldi-aretoan (General Alava/k, 5-1.a, Vitoria-Gasteiz) eman ziren ostegun banatan, urriaren 19an eta 26an eta azaroaren 2an, hurrenez hurren, 19:30etan.

Hitzaldi-sortaren helburua zen, modu erraz eta denentzat ulergarrian ezagutaraztea gure Ekonomia Itunaren iragana, oraina eta etorkizuna, bai halaber, euskal autogobernurako duen funtsezko garrantzia azaltzea, 2006an hura berreskuratzearen 25. urteurrena ospatzen zenean, hain zuzen. Zeren, erakunde antolatzaileok *“uste osoa baitugu Ituna bezalako instituzio bat oso ondo ezagutu*

behar duela gure Herriak, merezi bezala balioetsia eta, jakina, kementsu aldeztua izan dadin”.

Horrenbestez, lehenengo hitzaldia, *“Historia zirraragarria. Ekonomia Itunaren historia 1878tik gaur arte”*, urriaren 19an eskaini zen eta Eduardo Alonso Olea EHUko Historia Garaikideko irakasleak eman zuen.

Handik astebetetera, urriaren 26an Ignacio Zubiri Oria EHUko Ogasun Publikoko katedraduna *“Ekonomia Itunak azken 25 urteetan ekarri dituen ondorio ekonomikoak”* izan zuen mintzagai.

Azkenik, hitzaldi-sorta ixteko, azaroaren 2an Santiago Larrazabal Basañez Deustuko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakasle eta doktore eta Euskal Gaien Institutuko zuzendariak *“Ituna, durduzadura eta itxaropena: Euskal Ekonomia Itunaren etorkizuna hiru hitzetan”* izenburuko hitzaldia eskaini zuen.

5.2.- Luis de Eleizalde Iraskundea

- **“¡NUNCA MÁS!. IMÁGENES DE GUERRA 1936-1939” erakusketa eta hitzaldi-sorta IRUNen.**

Irailaren 2a eta urriaren 15a bitartean *“¡Nunca más!. Imágenes de guerra 1936-1939”* erakusketa ibiltaria Irungo Narbartenea eraikinean egon zen. Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolaturik, haren xedea da, ez ditzagula ahantzi herriek gerrekin zenbat sufritzen duten, ez bizirik ateratzen direnek bizi duten hondamendia. Irunen, erakusketa Irungo EGiren eskutik aurkeztu zen.

Argazki-erakusketa horren barruan bost hitzaldi ere eman ziren irailaren 14a eta urriaren 13a bitartean. Solasaldi bana eskaini zuten Paco Etxebarriak, Iñaki Anasagastik, Iñaki Garridok, Lourdes Erraztik eta Aitor Puchek.

5.3. Uzturre Iraskundea

- * **HITZALDI ZIKLOA: “Ekonomia Ituna, euskal autogobernuaren oinarria”**

Gasteizen bezala, hitzaldi-sorta batez aztertu zen Ekonomia Ituna berrezartzearen XXV. Urteurrenaren ospakizuna. Deustuko Unibertsitatearen Euskal Gaien Institutuarekin elkarlanean antolatu genuen eta apirilaren 27a eta maiatzaren 10a bitartean gauzatu zen.

Hitzaldi-sorta hiru hitzaldik osatua zegoen eta hirurak eman ziren Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan, Bilbon.

Lehenengo hitzaldia Eduardo Alonso EHUko Historia Garaikideko irakasleak eman zuen *“Historia zirrargarria. Ekonomia Itunaren historia 1878tik gaur arte”* izenburuarekin.

Bigarrena maiatzaren 2an eskaini zen; Alberto Atxabal Deustuko Unibertsitateko Finantza eta Tributu Zuzenbideko irakaslea Ekonomia Itunarenn orainaz mintzatu zen.

Azkenik, hitzaldi-sorta ixteko, maiatzaren 10ean Santiago Larrazabal Basañez Deustuko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakasle eta doktore eta Euskal Gaien Institutuko zuzendariak eman zuen hitzaldiaren izenburua *“Etorkizun kezkarria: Ekonomia Ituna mehatxupean dago? “Blindatu” daiteke Ekonomia Ituna?”* izan zen.



6.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZATOKIA

Sabino Arana Fundazioak eguneroko errealitateen ezagutzan sakontzeko erabiltzen duen baliabideetako bat mintegiak, hitzaldiak eta mahainguruak antolatzea da. Ez dago hoberik espezialista eta ikusmolde desberdinak biltzea baino, euskal gizartean dagoen aniztasunera hurbiltzeko eta elkar ezagutzea eta, sustatzeko, kultur mestizaia azken batez.

MINTEGIAK:

6.1.- “Elkarrizketa eta Gizartea. Etorkizuneko ildoak Europako Batasunean”

Sabino Arana Fundazioak, Mondragon Corporación Cooperativak eta Gizarte Ekonomiaren Espainiako Enpresa Konfederazioak (CEPES), hirurek elkarlanean, mintegi bat antolatu zuten 2006ko otsailaren 20an Bilboko Carlton hotelean *“Elkarrizketa eta Gizartea. Etorkizuneko Ildoak Europako Batasunean”* izenburuarekin.

Jardunaldia lan-bilkura bitan egin zen. Haietan instituzioetako, enpresaren munduko eta gizarte-esparruko ordezkari garrantzitsu zenbaitek parte hartu zuten; goizean, ehunetik gora pertsonaren aurrean, hurrengo hauek eman zituzten euren jakinarazpenak: Joaquin Almunia Jn., Europako Ekonomia eta Diru Gaietarako batzordekidea; Anne-Marie Sigmund And., Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko (CESE) presidentea; Joseba Azkarraga Jn., Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburua; Javier Salaberria, Euskadiko

Kooperatiben Konfederazioko presidentea; Pedro M^a de la Torre, Gizarte Ekonomiaren Espainiako Enpresa Konfederazioko presidenteordea; eta Juan Jose Ibarretxe jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.

Arratsaldean, arloko hogeitun bat adituk gai beraren gainean eztabaidatu zuten, atean itxita.

Jardunaldiaren helburua izan zen, batetik, administrazioek, enpresek, sindikatuek eta GKEek EBeko gizarte, herritar eta ekonomi elkarrizketan betetzen duten eginkizuneari sakontzea eta, bestetik, kide gehiago sartzeak dakartzan erronkak aztertzea.

Horrenbestez, Joseba Azkarraga Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak ukatu egin zituen sindikatuek egiten zizkieten salaketak, hots: ez zuela gizarte-elkarrizketaren alde egiten, eta aldi berean euskal sindikatuari aholkatu zien, behin-behinekotasunaren eta lan-ezbehar kopuruaren arazoentzako irtenbideak exijitzen dituztenean, erantzukizunak Espainiako Gobernuan bilatzeko, “hark sistematikoki ukatzen baitzizkigu eskuduntzak”.

Joseba Azkarragak bere hitzaldian EAEko gizarte-elkarrizketaren diagnostikoa egin zuen, eta argudio gisa erantsi, hura sindikatuen arteko banaketak oztopatzen duela. Sailburuak esan zuen, ez datorrela bat benetako gizarte-elkarrizketarik ez egoteak “enpresaburuei mesede egiten diete”lako tesiarekin; “nik uste dut —esan zuen— denon kalterako dela”, KES edo LHK bezalako erakundeek gizarte-elkarrizketan duten eginkizunari buruzko gogoeta eta azterketa prozesu bat iragarri ondoren, haiei bere sostengua eta sendotzeko nahia agertu zielarik; Azkarragak paradoxa bat nabarmendu zuen: behin-behinekotasunaren tasa handiak eta lan-ezbehar kopurua bezalako arazoak konpontzeko sindikatuek Eusko Jaurlaritzari gehiago inplikatzeko exijitzea, noiz eta eskuduntza horiek Madrilek dituztenean. “Zaila da gizarte-elkarrizketa eragingarria jadedestea, agertzen zaizkigun desafioei heltzeko behar diren baliabideak ez badauzkagu”, azaldu zuen.

Sailburuak, amaitzeko, esan zuen Euskal Administrazioak “ez dituela inoiz saihestu bere konpromisoak elkarrizketa arloan eta beti sostengatu duela ahalik eta adostasunik handieneko akordioak sinatzea”.

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, bere aldetik, adierazi zuen, “Europaren eraikuntzaren “funtsezko elementua” eskubide indibidualen eta kolektiboen partaidetza eta haiei erantzutea izan behar dela eta ez, “botereetatiko eraikuntza”, horrek frantsesek eta herbeheretarrek Konstituzio Itunari eman zioten ukoa bezalako porrotetara daramalako. Ibarretxek esan zuen ez zaiola “beldur” izan behar Europaren egitasmoa atxikimendu librean oinarrituta sendotzeari. Haren iritziz, EB indartsuagoa izango da baldin eta parte hartzeko mekanismoak ipintzen badira. Lehendakaria baikor agertu zen Europaren egitasmoaz denaz bezainbatean, deitoratu egin bazuen ere “ekonomia izana beti Europaren egitasmotik tiratu duena”, ezen “berari gustatuko litzaiokeena da —esan zuen—,

Europa eraikitzeko prozesuan aurrera egiteko gauza beharrezanez baino areago ilusioz izan gaitezen”.

Beste alde batetik, Joaquin Almuniak Europako Batasunak aurrean dituen erronka nagusiak aztertu zituen: egoera ekonomikoa, Konstituzioa eta etorkizuneko handitze-etapak.

Almuniak panorama baikorra iradoki zuen Europako ekonomiarentzat, aurtengo ekitaldi honetan zehar bere suspertzea sendotuko duelakoan baitago. Aldeko abaguneak Euro Eremuan %2tik gorako hazkunde-tasara heltzea ahalbidetuko du, azaroan aurreikusitako %1,9ren gainera. Hala ere —ohartarazi zuen—, aurrerapen hori «ez da nahikoa» eta eremu geografiko horren hedatze-gaitasun urria islatzen du, oso bestelakoa Estatu Batuentzat iragarritako %3,5en eta Txina eta India bezalako erresumentzako %10en aldean.

Europako batzordekideak ekin egin zuen europar ekonomiaren potentzial urri hori handitu beharra dagoelako ideian. Proposatu zituen neurrien artean, emakumeak lan-merkatara sartzea pizgarritz lagundu beharra nabarmendu zuen, immigrazioaren alde onak nabarmenaz gain, esparru horretan “ezabatu egin behar baitira populismo arriskutsuak elikatzen dituzten hautemate faltsuak”.

Azkenik, Anne-Marie Sigmund Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko (EKES) presidentea, erakunde horrek Europako gizarte-elkarrizketan solaskide gisa duen eginkizuna azaldu zuen, eta adierazi zuen ezen, demokrazia partehartzaileak ordezkapenezko demokrazia indartzen duela, hortaz gizarte zibilari hitza ematen dioten erakundeak garrantzitsuak dira prozesu demokratikoarentzat.

Mintegia arrakasta biribila izan zen, Euskal Herriko Autonomia Elkargoko hedabide nagusietan agertu ziren aipamen ugariak jaso bezala.

6.2.- “Ekonomia Itunaren beste erronka batzuk”

40 bat adituk parte hartu zuten Sabino Arana Fundazioak, Ekonomi Ituna berrezarri izana ospatzea helburu, ekainaren 22an antolatutako “Ekonomia Itunaren beste erronka batzuk” mintegian. Bileran, besteak beste, Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak, NUPko Finantza eta Tributu Zuzenbideko katedradun Fernando de la Huchak eta Pedro M^a Larrea Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburu ohiak hitz egin zuten.

Idoia Zenarruzabeitia lehendakariorde eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak adierazi zuen, Euskal Gobernuak “otsailetik” dituela “ateak irekita” “Estatuarekin Kupoaren Bosturteko Legeari buruzko “premiazko” negoziarioari ekiteko, gero Ekarpenen Legea berritzeari ekiteko. Gainera, sozietateen gaineko zerga ere aipatu zuen, baita karga-tasaren “segurtasun-atalasea” izan daitekeena ere, berori “legeak ituntzen dituzten borondate politikoak” ezarria izan dadin aldeztuz.

Zenarruzabeitiak argudiatu zuen, "Eusko Jaurlaritzak Kupoaren Legea negoziatzeko ikusten zuen "premia" zela, finantza-ikuspuntutik Estatuaren eta euskal instituzioen arteko orain arteko harremanaren bilakaerari dagozkion analisiak ikusita, "bosturteko hau dagoeneko itxita ikusi nahi zuelako, ondoren beste bost urteri ekiteko "finantza-parametro-sendoetatik eta etorkizun-ikusmugetan oinarrituta"

Lehendariordeak, gainera, argitu zuen, Jaurlaritzak komenigarriago ikusten duela lehendabizi Kupoaren Bosturteko Legeari ekitea eta, gero, Ekarpunen Legea egokitzea, Estatuari ordaindu beharreko kopurua apartatutakoan".

Baita gogorarazi zuen ere, Euskal Administrazioek zerga-erreforma bati ekin behar ziotela, hala Sozietateen gaineko zergarena, nola PFEZarena. Ildo horretan adierazi zuen ezen, "aldizka eta nartetasun eta adostasun giroan lan egiten ari direla arau haiek eztabaidatzen, ondoren onetsi ahal izateko".



Sozietateen gaineko zergaren barruan eta helegiteak eta ondorengo indargabetzeak edo eteteak ekidite aldera, karga-tasarako segurtasun-atalasea zein izango litzatekeen hartuta hizpide, "legeak ituntzen dituztenen borondate politikoak" ezarria izatearen alde agertu zen.

Gainera, sozietateen gaineko zergaren aldaketaz denaz bezainbatean, aurreratu zuen ezen, Euskadiko

Autonomia Erkidegoak ekingo diezaiekeen erreformak, "karga-tasa eta horrelako totemez at, herriaren errealitate sozioekonomikoa, ekonomi eta enpresa ehuna eta berrikuntza eta lehiakortasuna faktoreak kontuan hartuta egingo direla.

Idoia Zenarruzabeitiaren aburuz, zerga-sistema orokor desberdinen arteko bizikidetzan beti gertatuko da "nolabaiteko tentsioa", zeren "segurtasuna ia uniformetasuna baita Estatu osoan". Tentsioa, haren hitzetan, "aberasgarri gerta daiteke Lurralde guztientzat".

Hala ere, euskal Itunaren edo nafar Itunaren sistema, "desberdintzearen aldeko aukera egin dutenez, tentsioan bizi behar direlako tesia" dela-eta, azaldu zuen segurtasun-atalasea "EBaren eta Estatuaren esparruan zerga-sistema orokor desberdinak elkarrekin nareki, zorrozki eta seriotasunez bizitzeko, halako legeak itundu dituztenen borondate politikoek emango dutela".

Ogasun sailburu ohi Pedro Larreak aldeztu zuen, nahiago zuela Auzitegiek esku ez hartzea karga-tasaren atalasea zehazterakoan. "Ez dut gogoko gure Itunaren sistema epaileek xedatua egon dadin" esan zuen. Ildo horretan, bat etorri zen lehendakariordearekin, zioelarik ezarri behar dela "politikarien arteko negoziazio-

mahai bat”. Hala gertatzera, bere kautan konponduko litzateke edo epaileengana jo beharra gutxienera bilakarazi” adierazi zuen.

Fernando de la Hucha NUPko Finantza eta Zerga Zuzenbideko katedradunak adierazi zuen, Lurralde Historikoen lege batek aintzatetsitako gaitasun arau-emailea dutela “gaur egun sozietateen gaineko zerga erregulatzen duen testu birbatuan Estatuak ezartzen dituen bestelako tasak ezartzeko”. “Eta ez dago —erantsi zuen— inolako errentagarritasun-atalaserik.

Haren iritziz, konponbidea ez datza “arreta tasetan ipintzean”, zeren sozietateen gaineko zergaren globaltasunari ekin behar baitzaio”. “Hortik asimetriak daudela ondorioztatzea ez litzateke Ituna urratzea izango, zeren urratzea bakarrik gertatuko bailitzateke, baldin eta Lurraldeen gaitasun arau-emailearen erabilpena inbertsioak erakartzeko asmo frogatuarekin egingo balitz” zehaztu zuen.

6.3.- “Bake prozesua gaur. Atzeraezinezko bihur dadin baldintzak”

Sabino Arana Fundazioak joan den azaroaren 17an mintegi bat antolatu zuen Bilboko Sheraton hotelean, “elkarrizketak, gatazka politikoa konpondu dezan eta bizikidetzarako akordio handi baten oinarriak ezarri ditzan, behar dituen jarrerak eta prozedurak zehazteko”.

“Bake prozesua gaur: atzeraezinezko bihur dadin baldintzak” izenburuko jardunaldi hartan gatazka konpontzeko bitartekaritzako nazioarteko hiru aditu bildu zituen, baita alderdi politiko, sindikatu eta erakunde bakezale zenbaitetako, epailetzako eta hedabideetako ordezkari kopuru eder bat ere. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak ere parte hartu zuen, berak itxi zuelarik goizeko ekitaldia.



Hiru txostengileak: Roelf Meyer, Hegoafrikako Defentsa eta Konstituzio Gaietarako ministro ohia (Nelson Mandelarekin); Julian T. Hottinger, bitartekaria eta Suitzako Kanpo Arazoetako Sail Federaleko adituen taldekoa, eta Matteo Zuppi, Italiako San Egidio komunitateko laiko katoliko mugimenduko kidea, benetan zirenaren zereginen aritu ziren: arloko adituak, komunikatzaile bikainak izatez gain.

Ibarretxe lehendakariak bere hitzaldian adierazi zuen ezen, baldin bake-prozesuak "atzerantz egiterik ez duelako" bermerik bada, hori, euskal herritarren "prozesua hasi eta bukaeraraino"ko inplikazio erabateko, kementsu eta engaiatua dela.

Orobat, ohartarazi zuen, ez elkarrizketa-prozesua geraraztea, ez gure iraganeko formula suntsitzaileetara itzultzea direla aurrera egin eta eragozpenak gainditzea ahalbidetzen duten irtenbideak".

Ibarretxeren aburuz, "bake-prozesua atzerazenezko izan dadin eta guztion artean gatazka gainditzeko akordio bat lor dezagun giltzarria euskal herritarrak direla".

Julian T. Hottinger-ek, euskal bake-prozesuan parte hartu zuela, zehazki, ETAk eta Espainiako Gobernuak 1999an Suitzan izandako bileran, bitartekariak berak "ona" iritzi ziola, aitortu ondoren, halaber adierazi zuen, uste osoa zuela Euskal Herria hasita zegoela "bake-prozesuaren bide luzea ibiltzen", oraindik denbora beharko bada ere.

San Egidio komunitateko Matteo Zuppi aditu italiarra mesfidati agertu zen bide polizialez edo militarrez erdietsitako irtenbideekin, "zeren beti ernaberritzen dira", eta aholkatu zuen "bestea jendaurrean kriminalizat agerraraztea" saihesteko.

Eta Roelf Meyer-ek ekin egin zuen, sentiberatasun guztiez eztabaidatu beharraz, eta, ondorioz, Batasunaren legeztatzea aldeztu zuen.

Arratsaldean, txostengileek eta ordezkari politiko, sindikatuetako, talde bakezaleetako, Unibertsitateko eta besteko hogeita hamar bat ordezkari atearik itxita hitz egin zuten gai horrexetaz.

Sabino Arana Fundazioak antolatutako jardunaldiaren helburua bake-prozesuaren zenbait kontu aztertzea izan zen, hots: egoera berriak nolako aitzindari beharko duen; nola lortu daitekeen akordio politiko bat, eta horrek nolako behar duen, hartara euskal gizartearen adiskidetzea prestatu dadin.

HITZALDIAK

6.4.- Mario Sznajder-en hitzaldia: "Israeleko eta Palestinako azken hauteskundeak"

Mario Sznajder Historia Orokorrean lizentziatu, Zientzia Politikoetako doktore eta Jerusalemgo Hebrear Unibertsitateko katedradunak hitzaldia eskaini zuen joan den

apirilaren 6an Sabino Arana Kultur Elkargoaren Gogoeta eta Elkarrizketarako Mintzatokiak antolatuta. Israeldar aditua, palestinarren eta israeldarren arteko bakea jadestea helburu, Palestinar Aginte Nazionalarekin negoziatzearen alde agertu zen.

Adierazi zuen, gainera, nazioarteko komunitatearen zeregina “oso garrantzitsua dela”, ezen indarkeria ugari sorrarazten duen krisi-egoera batean “egin behar ez den akats politikoa” da, aldeei nazioartetik presio negatiboa egitea, zeren, beraren ustez, horrek lehendik dagoen krisia bera larriagotuko lukeen.

Azpiparratu zuen bezala, nazioarteko komunitateak du, Ekialde Hurbileko krisia konpondu nahi badu, pizgarri positiboak sustatzeko “ahalmen zentrala”, hango gatazka “biziki arriskutsua baita mundu osoarentzat, eta zehazki Europarentzat, eragina duelako munduak hurrengo urteetan bizitzeko behar dituen “energia-iturri nagusietan”.

lido horretan, onartu zuen gatazka hau konpontzea beharrezko urratsa dela “nazioartea egonkortzeko”. Horrexegatik, Sznajder-ek sostengatzen dituen pizgarri positiboetarako, ezinbesteko dira laguntza sozio-ekonomikoak eta ezagutza eta teknologia transferitzea.

Euskal arazoa ere aipatu zuen Sznajder-ek eta oso ondo iritzi zion Euskadin indarkeriaren hautabidea “pixkanaka ixten” joan izanari, “aukera gisa bazterturik geratzen delarik”.

6.5.- “La Habana Vieja osorik birpiztea, Nazioaren Ardura”, Patricia Rodríguez Alomá hizlari.

Patricia Rodríguez Alomá La Habana Vieja Birpizteko Egitamu Maisuaren zuzendariak hitzaldi bi eman zituen ekainaren 27an eta 28an, Bilbon eta Bergaran, hurrenez hurren, egitasmu hura ezagutarazteko.

La Habana Vieja Gizadiaren Kultura Ondare adierazi zuen 1982an UNESCOk. Gaur egun hiria birpizte-prozesu garrantzitsu batean murgildurik dago, zeregin horretan protagonismo handia hartzen dutelarik bertan dauden eraikin kolonialen lehengoratzelane.

Patricia Rodríguez arabera, *“Egitamu Maisuaren helburua da Erdigune Historikoa birgaitzea kultura-balioak garapen sozio-ekonomikoarekin bateratuz batera, aldi berean haren bizitegi-izaera artatu eta prozesuaren iraunkortasuna bermatuz”*. Izatez, hiriguneak kudeatzeko modu berri bat da, halako eraz ezen, prozesu horretan aldi berean gauzatzen baitira ondare-kudeaketa, sozio-ekonomikoa, finantza-kudeaketa, lege-arloko kudeaketa eta instituzionala.

l.

Patricia Rodríguez Alomák (La Habana 1959) “Jose Antonio Echevarria” Goi Institutu Politeknikoaren Arkitektura Fakultatean ikasi zuen Arkitektura, eta bertan lizentziatu zen 1982an. 1984tik jardun du La Habana Vieja birgaitzeko lanetan, Artapen, Zaharberritze eta Museologiako Zentro Nazionalan, eta 1994az geroztik, La Habana Hirirako Historialariaren Bulegoan. Bulego horretan Gune Historikoaren Planeamendua eta Kudeaketa Integrala zuzentzen ditu La Habana Vieja Birpizteko Egitamu Maisuaren zuzendari gisa. Gainera, Eusebio Leal La Habana Hirirako Historialariaren Bulegoko zuzendariaren ondo-ondoko lankidea da.

7.- GAZTERIA

7.1.- MINTEGIA: “Lurzorua eta etxebizitzak, bizitzeko modukoak”

Sabino Arana Fundazioak mintegi bat antolatu zuen azaroaren 27an, Bilboko Carlton hotelean, batetik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeari, Eusko Legebiltzarrak berriki onetsi duenari, ekiteko eta, bestetik, lehenengo etxebizitza eskuratzeari ekiteko, aldez edo moldez gizartearen sektore asko ukitzen duen gai bat, hain zuzen.



“Lurzorua eta etxebizitzak, bizitzeko modukoak” izenburuko jardunaldi horretan euskal administrazioetako —autonomia, foru eta udal instituzioak— eta espainiar administrazioiko Etxebizitza arduradunak batu ziren, gizarte-etxebizitzaren arloan European egindako aurrerapenez hitz egin ziezaguketuen beste aditu batzuekin batera.

Horrenbestez, goizean parte hartu zutenak izan ziren: Javier Madrazo, Eusko

Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua; Michael Ball, Hiri eta Jabegoaren Ekonomiako irakaslea Reading Unibertsitatean (Britainia Handia); Borja Jauregi, EUDELeke Etxebizitza Arloko arduraduna, eta Patxi Sierra-Sesumaga, Bizkaiko Foru Aldundiko Ahalduen Nagusiordea eta Hirigintza eta Udal Harremanen Foru Diputatua..

Javier Madrazok oratutako gaiaren izenburua “Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Lege berria eta horrek etxebizitzaren arloan dukeen eragina” izan zen.

Bere aldetik, Reading-eko (Britainia Handia) Unibertsitateko Hiri eta Jabegoaren Ekonomiako irakasle Michael Ball-ek “Lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatuaren bilakaera Britainia Handian” azaldu zuen. Michael Ball-ek bere herrialdeko hiru arlotako errealitatea hurbildu zion euskal gizarteari: etxebizitza denentzat prezio arazoizkoetan eskuratzeko aukerak; lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatuaren erregulazioa, eta etxebizitza bizitzeko leku gisa edo inbertsio gisa..

Borja Jauregi EUDELeke Etxebizitza Arloko arduradunak “Toki-erakundeek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea dela-eta duten eginkizun”erantz bideratu zuen bere hitzaldia.

Azkenik, Patxi Sierra-Sesumaga Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldun nagusiordea eta Hirigintza eta Udal Harremanen foru-diputatua “Lurzorua, etxebizitzak eta fiskalitatea”ri buruz mintzatu zen.

Arratsaldean, atek itxita, arloko hogeita hamar bat adituk gai berorren gainean eztabaidatu zuten. Txostengileak izan ziren: Dolores Aguado And., Etxebizitza Ministerioko Lurzoruaren Politikarako Zuzendariorde Nagusi; Jon Bereziartua, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolako irakaslea; Iñigo Maguregi, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saileko Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaria, eta Antonio Calvo, ASCOVI-BIEBAren Aholkulari Juridikoa, zeinek Legeak etxebizitzaren azken salneurrian izango duen ondorioaz hitz egin baitzuen.

Azkenik, 19:30 eta 20:30 bitartean Jon Bereziartua, Iñigo Maguregi eta Antonio Calvo txostengileek gai honi buruzko debate-foro batean parte hartu zuten; elkarrizketa Sabino Arana Fundazioaren web orrian (www.sabinorarana.org) egin zen.

7.2.- Ahozko historiako tailerrak gazte eta eskola-umeentzat

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak, Artea Arratian dituen instalazioak bisitatzera datozen ikastetxe guztientzat, abiatu duen jarduera-multzoarekin jarraiki, 2006an sei historia-tailer egin dira..

Helburua da, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei, Euskadiren historiako zenbait gertaeratan aktore nabarmen gisa eta behatzaile kualifikatu gisa bizi eta jasan zutenaren gaineko iritziak adierazten eta euren bizipenak kontatzen dituzten pertsona askoren lekukotasunak entzuteko aukera eskaintzea.

Azalpenen osagarri gisa, bideoak ematen dira eta, gainera, aukera egoten da gazteek protagonistei galderak egiteko adierazitako garaiak eta bertan bete zuten eginkizunaz.

2006ko urtarrilaren 24a

Historia-tailerrak. Kolaboratzaileak: Jose Maria Otxoa de Txintxetru, “Kirikiño” batailoiko gudaria, eta Joseba Agirre Zabala, Jose Antonio Agirre lehendakariaren semea.

Partehartzailea: Getxoko San Nikolas ikastola.

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoko aldi baterako erakusketetarako “Manu Egileor Aretoa”.



2006ko urtarrilaren 26a

"Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada" erakusketaren tailer didaktikoa

Bigarren Hezkuntzara zuzendutako tailerra (12-16 urte). Izenburua: "¡¡Eguneko albiste!!".

Partehartzailea: Gallartako Dolores Ibarruri ikastetxea.

Lekua: Foru Artxiboaren erakustaretoa . Bilbo.



2006ko otsailaren 21a

Historia-tailerrak. Kolaboratzaileak: Joseba Verdes, klandestinitatean lan egindakoa, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, oropen historikoa berreskuratzeko atalean.

Partehartzailea: Durangoko "Fray Juan de Zumarraga" Bigarren Hezkuntzako Institutua.

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoko aldi baterako erakusketetarako “Manu Egileor Aretoa”.



2006ko otsailaren 22a

Historia-tailerrak. Kolaboratzaileak: Esteban Urien, Belgikara erbesteratutako gerrako semea, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, oropien historikoa berreskuratzeko atalean.

Partehartzailea: Durangoko “Fray Juan de Zumarraga” Bigarren Hezkuntzako Institutua.

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoko aldi baterako erakusketetarako “Manu Egileor Aretoa”.



2006ko otsailaren 23a

Historia-tailerrak. Kolaboratzaileak: Luis Zabarte, "Itsas Alde" batailoiko kapitaina, eta Iñaki Egaña, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, oropen historikoa berreskuratzeko atalean..

Partehartzailea: Lauro ikastola.

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoko aldi baterako erakusketetarako "Manu Egileor Aretoa".



2006ko otsailaren 24a

Historia-tailerra. Kolaboratzaileak: Luis Zabarte, "Itsas Alde" batailoiko kapitaina, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, oropen historikoa berreskuratzeko atalean.

Partehartzailea: Lauro ikastola.

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoko aldi baterako erakusketetarako "Manu Egileor Aretoa".

7.3.- On line komunikazioa: Zuzeneko foroak Fundazioaren konbidatuekin.

Sabino Arana Fundazioak garatu duen korporazio-estrategiaren aldaketarekin eta web orri berria eta newsletter bat abian ipintzearekin batera.

8.- JOLAS ETA KULTUR JARDUERAK

8.1.- Sabino Arana Sarien Kultur Ekitaldia

Jordi Pujol Kataluniako Generalitateko president ohiak, Jose Maria Setien Donostiako gotzain emerituak, Andoni Egaña bertsolariak, Biarritz balletak eta ONA Electroerosión sortu zuen Karmel Onandiak jaso zuten Sabino Arana Sarien XVII. aldiko saria, Bilbon, joan den urtarrilaren 29an.



Juan Jose Ibarretxe izan zen buru 2005eko Sabino Arana Sarien emate-ekitaldian, zein Arriaga antzokian egin baitzen, Euskal Herriko kultura, politika, kirol, gizarte eta ekonomia esparruetako zenbait pertsona nabarmen ere han zirela.

Sariak emateko ekitaldian Sabino Arana Fundazioko lehendakari Juan Maria Atutxak gomutara ekarri zuen, aurrean dela Gerra Zibilaren hasieraren hirurogeita hamargarren urteurrena, eta agertu zien bere “esker ona, gerraren fanatismoaren, intolerantziaren eta nagikeria intelektualaren nahiz indarkeriaren guztiz kontrako jokabide eta balioen ikur diren pertsonei et bizi-ibilbideei”.

Ildo horretan, gaitzetsi egin zituen “gure etorkizuna epikan dagoela uste dutenak”, esanez, “ez direla gure iraganarekin koherente, ez gure orainaz jabetzez eta, jakina, ez daudela posiziorik onenean etorkizun horren protagonista izateko”.

"Beste posizio batzuetatik uste dutenek euren orainaren iturria inperioetan eta birkonkistetan daudela, horiek ere arazo berdina dute. Behar dugulako etorkizun

gizatiarragoa, solidarioagoa eta irekiagoa, inoizko gutxien interkonektaturik dagoen mundu honetan, erantsi zuen.

Sarien XVII. aldi hartan Sabino Arana Fundazioak Kataluniako Generalitat-eko President ohia, Jordi Pujol, saritzea erabaki zuen "Berezia" atalean, autonomia berrezarri zenetik Kataluniako gobernuaren burutzan hark egindako ibilbide politikoa goresteko eta "beti aldeztu izan dituen askatasunaren eta demokraziaren bilaketa eta tolerantzia bezalako balioekin izan duen konpromisoarengatik" esker ona erakusteko.

"Bizitza osoan zeharreko ibilbidea" atalean saria Jose Maria Setieni eman zitzaion, "soziopolitikako eta bakearen politikako gai handiez eta askatasunarekiko eta pluralismoarekiko begiruneaz agerturiko kezkatik". Gainera, nabarmen egin zen beraren gogoetak indarkeria-mota guztiekiko erabateko arbuioan oinarrituta egon direlako eta, euskal gatazkaren konponbidea ere, elkarrizketa, egia eta justiziaren harroinetatik bilatu izan dutelako".

Andoni Egaña bertsolariarentzat izan zen "Gizartea" ataleko saria, "bertsolaritza ezagutarazteko eta hedatzeko egin duen ekarpenagatik eta, horretara, euskal kulturaren tradiziozko herrikoienetako bat gizarte-gertakari nabarmen bihurtzen lagundu duelako".

Beste alde batetik, Biarritzeko Balletak, Filgi Claverie bere gerenteak eta Adriana Pous balletaren Hegoaldeko arduradun artistikoak ordezkaturik, jaso zuen saria "Kultura" atalean. Sabino Arana Fundazioak "Ballet Biarritz - Nazio eta Mugazgaindiko Koreografiarako Zentroak arretaz egindako lana saritu nahi izan zuen, Iparraldean zein Hegoaldean dantzari gazteen prestakuntza sustatzeagatik eta errazteagatik eta gure koreografi ondarea geure lurraz haratago ezagutarazteagatik".

Azkenik, "Ekonomia" sailean ONA Electroerosion saritu zen, "elektrohigadura-makinen munduko fabrikatzaile zaharrena eta Europako Batasuneko ekoizle nagusia", ezen "haren historiak diseinua, berrikuntza eta kalitatea esan nahi du. ONA Electroerosionen jarduera euskaldunek mundu zabalean egiten duten lan onaren adibide ezin garbiagoa da". Saria Karmel Onandiak, konpainiaren sortzaileetako batek, jaso zuen.

8.2.- Durangoko Azoka.

Abenduaren 6tik 10era Fundazioa berriro egon zen, "stand" birekin, Durangon urtero egiten den euskal liburu eta disko azokan, Fundazioaren azken argitalpenak erakusteko eta saltzeko.

8.3.- Sabino Arana Fundazioaren web orri berriaren aurkezpena

Sabino Arana Fundazioak bere web orria eguneratu eta birdiseinatu du eta Mezu@ izeneko newsletter edo buletin elektronikoa bat sortu du. Informaziorako produktu

horiek biek, zeintzuk joan den abenduaren 14an aurkeztu baitziren, Fundazioak antolatutako jarduerari buruzko denetarikozko informazio zehatza emango dute eta sarbide-ate ere izango dira sorrarazten ari den balio erantsi handiko zerbitzu berrietarako.

9.- EUSKARA SUSTATZEKO EGITARAUAK

9.1.- Bertsopaperen lehiaketa

Gazteen artean euskara erabiltzea bultzatzeko eta sustatzeko garatzen dituen jardueren artean, Sabino Arana Fundazioak joan den ikasturtean hirugarren "*bertso-paper lehiaketa*" ipini zuen abian, eta orain Lehen Hezkuntzako 2. zikloa eta DBHko 4. maila, biak barne, bitartean ikasten ari diren Euskal Herri osoko eskola-umeei dago zuzenduta.



Gazteen artean euskara bultzatu eta sustatzea helburu, Sabino Arana Fundazioak antolatutako Bertsopaperen III. Lehiaketa honetan Euskal Herri osoko 200etik gora ikaslek parte hartu zuten eta hurrengo hauek izan ziren irabazleak:

A kategorian (Lehen Hezkuntzako 2. zikloa) irabazlea Ane Etxebarria izan zen, Mungiako Bentades Ikastetxekoa. Bigarren eta hirugarren postuetan, hurrenez hurren, Mikel Tapia, Joxemiel Barandiaran Ikastetxekoa (Ataun) eta Maialen Akizu, Gainzuri IPkoa (Urretxu) geratu ziren.

B kategorian (Lehen Hezkuntzako 3. zikloa), zeinetara 120 lan aurkeztu baitziren, irabazlea Jone Alberdi, Urretxu-Zumarraga Ikastolakoa (Urretxu) izan zen. Kategoria honetan bigarren Miriam Etxaniz, Xabier Munibe Azkoitiko ikastolakoa sailkatu zen eta hirugarren, Iñaki Dorronsoro, Joxemiel Barandiaran Ikastetxekoa (Ataun).

Hirugarren edo C kategorian (DBHko 1. eta 2. mailak) lanik onena Urretxu-Zumarraga Ikastolako Amaia Iturriozena izan zen, eta atzetik, bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren, Izaro Zinkunegi, Ikasberri Azpeitiko Ikastolakoa eta Mikel Dorronsoro, Joxemiel Barandiaran Ikastetxekoa.

Azkenik, D kategorian (DBHko 3. eta 4. mailak), Ainhoa Mújica, Jakintza Ikastolakoa (Ordizia) izan zen irabazlea. Bigarren postuan Xabier Iturraspe, Resurrección M^a de Azkuekoa (Lekeitio) geratu zen eta hirugarrenean, Maialen Larrea, Andra Mari Ikastolakoa (Zornotza).

Epaimahaiak, aurkeztutako lanen maila nabarmendu zuen, hala errimari dagokionez, nola metrikari eta mezuari, eta adierazi zuen, horrek beste behin frogatzen duela gazteak bertso-eskoletan gero eta gehiago ikasten ari direla eta horretara gero eta dedikazio handiagoa eskaintzen diotela.

Hamabi sarituek lortu zuten saria izan zen, lau eguneko bidaiara, bakoitza pertsona bik lagunduta, Valentziako Arte eta Zientzien Hirira eta Terra Mitica Gaikako Parkera, ekainaren azken aldera gozatu zutena.

Gaur egun, dagoeneko abian Lehiaketaren da IV. aldia.

9.2.- Erakusketa: “Habla en cristiano”, Artea Arratian,

Urtarrilaren 24tik apirilaren 30era Arte Arratiako Manu Egileor Erakustaretoan “Habla en cristiano” erakusketa paratu zen. Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatutako erakusketa ibiltari horrek ikuspegi historiko bat du abiaburu, bertan mendeetan zehar euskarak jasandako isiltzeen, debekuen eta jazarpenen gaineko agiriak, mapak eta eskuizkribuak erakusten dira. Ondoren, ibilaldi bat egiten da gerra osteko urteetan Euskal Herriko edozein leku izan zitekeen herri batean, eta edozein egunetan. Gero, trantsizioa irudikatzen duen tunel bat igarota, etorkizunera eta teknologia berrietara iristen gara; hor gaur egun Euskara, esparru guztietan moldatzea ahalbidetzen digun hizkuntza bat dela ikusten da.

Gauzakiakin, irudiekin eta agiriekin batera, entzungailuak ere bai, errepresioaren garaiko bizipenak kontatzen dizkiguten lekukotasunak ere entzun ahal izateko.

9.3.- Erakusketa: “Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada”

Apirilaren 5etik maiatzaren 7ra arte Kultur Leioa erakustaretoan egon zen “Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada” erakusketa ibiltaria. Erakusketa Mungiako Udalak eta Sabino Arana Fundazioak antolatua da, XX. mendearen hasierako euskal kulturaren pizkundearen ikurretako bat izan zen Esteban Urkiaga "Lauaxeta" (1905-1937) euskal olerkari eta literatoaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko.

“Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada” olerkariaren bizitzan zehar egiten den ibilaldi bat da: hasi Mungian igarotako haurtzarotik eta, bai kazetaritzan profesional gisa lan eginez, bai poesian jardunez eta euskal kausarekiko konpromisotik igarota, azkenean 1937ko ekainaren 25ean guda-talde frankistek Gasteizen fusilatu zuten arte.

Erakusketa horrek Lauaxetaren figura hurragotik ezagutzen lagundu zien leioarrei, zenbait gauzaki, agiri, elkarreraginezko tresneria, panel, argazki eta besteren bitartez; horietako asko, gainera, lehenengo bider erakutsi ziren Euskadin.

9.4.- Sabino Arana Fundazioak Euskararentzat duen egitamua

Euskararen arloari dagokionez, 2006an Sabino Arana Fundazioak bere ahaleginen zatirik handiena, jardun ohi duen esparru guzietan eta garatzen dituen jarduera eta jakinarazpen guztietan euskararen erabilpena normalizatzerara eta sendotzera zuzendu ditu.

Horretara, Sabino Arana Fundazioaren urte anitzeko egitamuaren helburua, Fundazioak berak sortuz geroztik euskaraz garatu izan duen jarduera finkatzea eta haren erabilpena areagotzea da, hala ahozkoa, nola idatzizkoa, kanpo-harremanetan batez ere, eta beti sustatuz euskarazko produkzioa.

9.5.- Euskararen erabilpena

Sabino Arana Fundazioan neurriak hartzen ditugu, euskararen erabilpena garatzea eta normalizatzea ziurtatzeko, eta haren izari bikoitza kontuan hartuta, hots: gure Herriaren Kultura Ondarearen funtsezko atala izatea, eta, gaztelaniarekin batera, Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko guztietan erabilera ofizialeko hizkuntza izatea. Horregatik, hizkuntza ofizial biak erabiltzen ditugu Fundazioaren beraren jarduera guztietan, hala barrukoetan (Patronatu Batzak, Artezkaritza, jarduerak antolatzeko bilerak, etab.), nola kanpo-jardueretan (lagun ongileei bidali ohi zaizkien jakinarazpenak, hedabideei bidaltzen zaizkien deialdiak, geure jardueretarako konbidapenak, etab.). Argitalpenen arloan ere, hala liburuetan, nola Hermes aldizkarian, euskararen erabilpenaren garapena eta normalizazioa fiinkatzen saiatzen gara.

Langileei dagokienez, %90ek euskaraz dakite eta egunero erabili ohi dute gure lan-harremanetan, hala barrukoetan nola kanpokoetan.

Euskararen arloan 2006an hark garrantzi berezia izan du garatutako jarduera guztietan eta, bestalde, gure arretaren zati handi bat Euskararen Egitamu Urteanitzari eman zaio, hasieratik Fundazioak euskaraz garatutako jarduera sendotzeko eta euskararen erabilpena, ahozkoa zein idatzizkoa, areagotzeko, batez ere kanpo-harremanetan, beti sustatuz euskarazko produkzioa. Bereziki nabarmena izan da egunero egiten den ahalegina, gure web orri berriaren sail guztiak elebidun bihurtzeko.

10.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIOEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioak bere izaera zabalagatik zenbait elkarlan gauzatu ahal izan ditu beste erakunde eta instituzio batzuen ordezkariekin, berez egin ohi dituen jarduerakoez gainerakoak, alegia.

2006an hurrengo hauek izan dira:

Orain dela urte batzuk hasita dagoeneko ohiko bihurtu delarik eta Euskadiko Galizako Etxeen Elkartearekin elkarlanean, otsailaren 11n gorazarrea egin zitzaion Castelaori Sabino Arana Fundazioak haren oroimenez eraikitako monumentuan.

Amurrioko Udalarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta AVNIA Kultura Elkartearekin elkarlanean, Jesus Galindez Euskadiko Gobernuaren erbesterako ordezkaria New Yorken desagertu izanaren 50. urteurrena gogoratzea helburu, martxoaren 11n lore-eskaintza egin zen Aresketa Mendin.

Beste alde batetik, Sabino Arana Fundazioak, Gernikako bonbardaketaren biktimen oroimenez apirilaren 26an egin zen lore-eskaintzan parte hartu zuen, EAEko agintari zenbaitekin, alemaniar udal batzuen ordezkariekin, beste erakunde batzuekin, Gerra Zibilean bizirik atera zirenekin eta senideekin batera.

Matxixako Elkartearekin eta Bermeoko Udalarekin elkarlanean, omenaldia egin zitzairen Matxixakoko guduan hil ziren Euskadiko Itsas Armada Laguntzaileko gudari guztien senideei eta adiskideei.

Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, urtean zehar hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatu ziren, umeei eta gazteek hobeto ezagut zitzaten bizi diren ingurunea eta historia.

Alderdi politiko eta ideologia askoren ordezkariak dituen "Aterpe 1936" elkartearekin lankidetzan, demokraziaren eta askatasunaren alde borrokatu zirenen oroipenezko eskultura ezartzen eta haien aldeko gorazarre-ekitaldia antolatzen parte hartu zen.

EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarraren ordezkari ugari bat, besteak beste, Batzorde Betearazle Nazionaleko lehendakari Josu Jon Imaz, EBBko idazkari Josune Ariztondo, Iñigo Urkullu eleduna eta beste burukide batzuk, hala nola, Jose Antonio Rubalkaba, Gorka Agirre, Gema González de Txabarri, Joseba Aurrekoetxea, Markel Olano eta Ramuntxo Kanblong, Sabino Arana Fundazioaren egoitza berrian izan ziren bisitari, Juan Maria Atutxa erakundeko lehendakaria eta Iruñe Zuluaga bertako zuzendaria izan zituztela gidari.

11.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA – ARCHIVO DEL NACIONALISMO

I.- AGIRI FUNTSAK. EGINDAKO LANAK.

A) ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOA.

Aurten antolatutako dokumentazioa:

- Luis Zarrabeitiaren dokumentazioa (EBBren diruzaintza)
- Jesus Solaun funtsa (1. zatia)

Agiri-funts bi horiek sailkatzean eta antolatzean izandako berritasun nagusia izan da, haien deskripzio osoa euskaraz zein gaztelaniaz egin dela (Fitxa elebiduna)

B) BIBLIOTEKA FUNTSAK

Abertzaletasunaren Agiritegiaren Liburutegian 2006/12/31 bitartean erregistraturiko monografiak **30.214** izan dira. Urte honetan **1.434** lan erregistratu eta bizkar-oharra ipini zaie; horietako asko, besteak beste, Joseba Kintana, Charo Beobide, Rosario Ajuriagerra, Jose Angel Gainza eta Koldo San Sebastianen dohaintzak.

C) "UZTURRE" HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako agerkarien aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu da. 2006an beste **230** izenburu berri gehitu zaizkio Hemerotekari. Une horietara arte "Uzturre" Hemerotekak **5.518** izenburu desberdin dauzka, 136.000 ale guztira.

II.- KONTSULTAK - AHOLKULARITZA HISTORIKO-DOKUMENTALA – LANKIDETZAK – JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA- EDITORIALA

Abertzaletasunaren Agiritegian **335** informazio-eskaera jaso dira 2006an, iaz baino ia %20 gehiago), postaz, posta elektronikoz, faxez nahiz aurrez aurre. Urte horretan jasotako ia kontsulta guztiak telefonoz eta posta elektronikoz izan dira. 1992ko urritik egindako zenbaketa orokorrak dio **2.616** kontsulta jaso direla.

Abertzaletasunaren Agiritegitik hurrengo ekitaldi hauetara joan eta parte hartu da:

- Euskonewserako artikulu bat, Agiritegian egindako digitalizatzeko-egitasmoei buruzkoa. Zehazki 336. zk.an - 2006/02-24/03-03 - argitaratu zen.

- II. Catalunya – Euskadi jardunaldiak. Bilbon egin ziren, izenburua: “Historia, 1945 – autonomia-legebiltzarrak eratu bitartean”.
- Nevada-Renoko Unibertsitatearekin lankidetzak (euskal funtsen artxiboetako lana).
- IV. Valentziar Artxibozainen Jardunaldiak azaroan; izenburua: “Guerra y Archivos”.
- Erbestaldi intelektualari buruzko mintegia; Donostian egin zen abenduan.
- Telebista-solasaldi batean (Tele7) parte hartu zen; gaia, Gerra Zibila Euskadin.
- Hurrengo monografía hauen argitaratze-kontrola (kapituluak, idaztea, inprimategiko probak zuzentzea, diseinua, etab.) ere egin da:
- “Abertzaletasunaren mende bat Deustuan. EAJ/PNV Deustuan (1904-2005)”. Eginbidetan.
- “Galíndez, la tumba abierta. Guerra, exilio y frustración”.
- Labayru Ikastegiarekin elkarlana, Alberto Onaindiaren artxiboa, 1936-45, argitaratzeko. Posta-trukea bildu, agiriak ordenatu, kopia....
- “Bitxiak II”
- “Bergarako Batzokia”

III.-MAILEGUAK / KOPIAK

Zenbait lankidetzak egin dira elkarlanean 2006an; dokumentazioa edo material grafikoa laga da, hainbat lan, argitalpen, erakusketa edo erreportajetan sartzeko, batez ere; hurrengo hauei laga zaie:

:

- SUSA ARGITALETXEA: ARGIA egunkariaren aleen (1928 eta 1929) digitalizazioa
- ALDAKETA HAMASEI: Gernikako Batzar Etxean 1981eko otsailaren 4an, Espainiako errege-erreginak bertan zirela, egindako ekitaldiaren argazkiak.
- BIZKAIKO GAIK –BBK FUNDAZIOA: Lanean ari diren emakumeen argazkiak, gero argitaratzeko. Otsailean argitaratu zen, 367-368 zenbakia.
- DIEGO MURO: Abertzaleen horma-irudien argazkiak, laster argitaratzeko den lan baterako

- GARA, "ZAZPIKA": Gaitzat emakumeak gerran izango duen artikulua argitaratzeko
- SENDO S.L. (Urdin Elortza): Bizkaiko Gerrikoaren Plana interpretazio-mahairako.
- UTRIUSQUE VASCONIAE ELKARTEA (Paulo Iztueta). Dokumentazio-kopiak, Nikolas Ormaetxearen lan guztien argitalpen batean sartzeko.
- GRUPO ANAYA: "El Nacionalismo Vasco, claves de su Historia" lanerako argazkiak
- LUIS MADINA. Elorrioren argazki-liburua egiteko.
- IÑAKI O'SHEA. Iñaki Gorostidiren berbaldia (Burgoseko epaiketan).
- ELKAR ARGITALETXEA, testu-liburu bat egiteko argazkiak
- AITZIBER LEKUONA, ikerketa-lan baterako argazkiak.
- "NOTICIAS DE GIPUZKOA": Av. Marceau-ren eta "Euzkadi" egoitzaren argazkiak kazetari-erreportaje baterako.
- "EDITORIAL NEREA S.A": Emakume miliziano baten argazkia, laster argitaratuko den lan baterako.
- ALBERDANIA S.L.: Jose Antonio Agirreren argazkiak Ludger Mees-ek egindako biografiarako.
- "EL MUNDO", Galindezen, erbestaldiko Euzko Jaurlaritzaren, euskal abertzaletasunaren zenbait ordezkari erbesteraturen eta besteren argazkiak "El Franquismo año a año" historia-entziklopediarako.
- "LC Consultores": Argazkiak Bilboko portuan umeen erbestaldiari buruzko erakusketa baterako.
- "El País": Estatutuari eta Gerra Zibilar buruzko argazkiak.
- "Idem Producción Audiovisual": Molaren esku-orriaren argazkia erreportaje baterako.
- S&F 97 (Oier Aurrekoetxea): "Gerra Zibila Sestaon" erakusketarako argazkiak
- "Bidegileak": Caracasko Euskal Etxearen inaugurazioaren argazkiak
- Rafael Ocete (Sevillako Uniberts.): Gernika suntsituaren argazkiak

IV.- PARTIKULARREN DOHAINTZAK

Dohaintzak egin dituztenak, 2006/12/31ra arte, 1.305 izan dira guztira. Urte honetan **80** pertsona izan ditu lagunkide Abertzaletasunaren Agiritegiak. Azken kopuru horretatik 41 dohaintza-egile berriak izan dira.

Dohaintzen artean nabarmentzekoak dira, tamainagatik, hiru etxe-bibliotekaren liburu-dohaintzak, hots: Eli Zubizarreta (haren arreba Estibalizen dohaintza); Belaustegigoitia, eta Mariano Bustamante Buron (Begoña Garinek emanda).

V.- IKERTZAILEAK

2006an gure agiri-funtsak kontsultatu dituzten ikertzaileak 69 izan dira. Haien izenak eta gaiak hurrengo hauek izan dira:

Deiturak	Izena	Ikerketa-gaia
BARANDIARAN CONTRERAS	MIREN	AMOREBIETAREN HISTORIA, JELKIDEEN BIOGRAFIK, ABERRI EGUNA, "ALDERDI"
ESTÉVEZ RODRÍGUEZ	XOSÉ	GALEUZCA
DELGADO CENDAGORTAGALARZA	ANDER	BIZKAIAREN HISTORIA POLITIKOA ERRESTAURAZIOAN (1856-1923). RAFAEL PIKABEAREN BIOGRAFIA
LEZAMIZ LUGAREZARESTI	JULEN	GERRA ZIBILA EUSKADIN // BITXI BAHITURAK (THORPEHALL BAPORA) EUZKO JAURLARITZAK GERRA ZIBILEAN EGINDAKO BAHITURAK.
NIEBEL HOEVER	INGO	WAKONIGG KASUA
AIZPURU MURUA	MIKEL	EUSKAL ABERTZALETASUNA GIPUZKOAN
ARRIEN BERROJAECHVARRIA	GREGORIO	EUSKALDUNAK KATALUNIAN ; UMEEN ERBESTERATZEA
CHUECA INTXUSTA	JOSU	EUSKAL ABERTZALETASUNA NAFARROAN II. ERREPUBLIKAN. EUSKAL ERBESTALDIA VENEZUELAN GURS
IZTUETA ARMENDARIZ	PAULO	ERBESTALDIKO KULTUR EKOIZPENA (1936-1975)
JIMÉNEZ ORMAETXEA	EDORTA	UNTZAIN KAZETARI ATZERRITARRAK EUSKALDIN GERRA SASOIAN

LARRONDE AGUERRE	JEAN-CLAUDE	SABINO ARANA, EAJ-REN HISTORIA, IKASKUNTZAREN BILTZARRA, LA ROSERAIE, JUAN DE USABIAGA,
QUINTANA ARNÉS	CARLOS	ELIZA ETA KARLISMOA SEVILLAN XIX. MENDEAN
ROMERO PÉREZ	FERNANDO	PROPAGANDA KANPAINAK 1946, 1966, 1976 ETA 1978KO ERREFERENDUMETAN.
SERRANO ABAD	SUSANA	EUSKAL HERRIKO PARLAMENTARIAK 1876 – 1939
SANZ GOIKOETXEA	ENEKO	EAJ IRUNEN ETA HONDARRIBIAN, 1960 ETA 1986 BITARTEAN (2006KO BEKA)
SHIOZAKI	KIMIYASU	IRLANDAR ETA EUSKAL ABERTZALETASUNEN ARTEKO HARREMANAK
SARRIONANDIA-IBARRA FERNÁNDEZ	BORJA	II. ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILAK DEUSTUAN ERAGINDAKO ONDORIOAK
FERNÁNDEZ GUTIÉRREZ	JOSEAN	ZINEA ETA GERRA ZIBILA EUSKAL HERRIAN (TESIA)
GARAMENDI MEABE	URKO	EUSKADIKO GERRA: LEHENENGO EUZKO JAURLARITZA (DOKUMENTALA)
ESPARZA ORDEÑANA	IÑAKI	ARRATIKO EUSKAL IDAZLEEN ANTOLOGIA
CALZACORTA ERORTA	JAVIER	FOLKLOREA
URKIZA MARCOS	IVAN	EUSKAL ABERTZALETASUNA ARABAKO ERRIOXAN
ERKOREKA GERVASIO	JOSU IÑAKI	EUSKALDUNAK NAZIO BATUETAN EUSKAL ABERTZALEEN GUTXIENGOA ERREPUBLIKAREN GARAIAN
ORELLA UNZUÉ	JOSÉ LUIS	EUSKAL LEGELARIAK ERBESTALDIAN
LEKUONA	AITZIBER	HONDARRIBIA ETA IRUNGO BATZOKIAK
MARTÍNEZ RUEDA	FERNANDO	EUSKAL DIPUTATUEN HIZTEGI BIOGRAFIKOA
LECEA SALEGUI	JOSU	GERRAN EBAKUATUTAKO SENIDEEN BILA
IBERNIA BELAMENDIA	ZIGOR	INFORMAZIO ZERBITZUAK, GERRA

		ZIBILA ETA II. MUNDU GERRA
MURGOITIO ATXA	ENRIQUE	SAN ANTON ABESBATZAREN HISTORIA
NÚÑEZ SEIXAS	XOSÉ MANOEL	NAZIONALISMOAK ETA GERRA ZIBILA
ESTÉVANEZ SOBRÓN	MARINA	EUROA: DIRU HUTSETIK HARAGO
FARWELL CASTILLO	ARITZ	EUSKARA ETA EUSKAL HERRIKO PRENTSA
DÍAZ SÁEZ	JOSÉ ANTONIO	EUSKAL SELEKZIOAK
ANASAGASTI	IÑAKI	GORTEETAKO PARLAMENTARI-EKINTZA 1931TIK
BEGOÑA GARAIZAR	MIKEL	MATXITXAKOKO ITSAS GUDUA
DEPLANCKE	NATHALIE	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN SORRERA ETA SABINO ARANAREN IDEOLOGIA
ISASI ORTIZ DE BARRÓN	JESÚS	ESPAINIAKO GERRA ZIBILA
FERNÁNDEZ SUÁREZ / HERNÁNDEZ ZUÑIGA	SERGIO / AZENED	BIDE ONERA KOOPERATIBA
EGURROLA MADARIAGA	IÑAKI	ARANA GOIRI
O'SHEA ARTIÑANO	IÑAKI	BURGOSEKO EPAIKETA: PATXI GOROSTIDIREN MINTZALDIA
HERNÁNDEZ ÚRCULO	JOSÉ	LANDA MEDIKUAREN JARDUNA, CASTRO-URDIALIZ 1830-1930
LANDA DE MIGUEL	NEREA	
LOBSENZ	EMILY	EUSKAL HERRIKO KULTURAREN ETA HISTORIAREN GAINEKO DOKUMENTALA. JOSE ANTONIO AGIRREREN ARGAZKIAK
GARRIDO YEROBI	IÑAKI	EUSKO JAURLARITZA
GENIOLA	ANDREA	NAZIONALISMO PERIFERIKOAK
SANTALÓ	JAUME	KONTZENTRAZIO ESPARRUAK FRANTZIAN, 1939-1945
GOROSTOLA BARAYAZARRA	MARÍA ARANZAZU	NAZIOTASUN ESPAINOLDUN SEFARDITAK NAZIEN PEKO EUROPAN
ZAPIRAIN ALBIZU	ERIZ	"EZ DOK AMAIRU" ETA GARAI HURA (60KO ETA 70KO HAMARKADA). [ORIO PRODUKZIOARENTZAT]
SARACHAGA RAMÍREZ	TXOMIN	GERRA ZIBILA EUSKAL HERRIAN
ITUARTE AULESTIA	ASIER	MUSIKA ERREPUBLIKAN ETA

		GERRA ZIBILEAN
NAVARRO MERCERO	NEREA	ANDONI AROZENA
DÍAZ PEÑA	NATALIA	CARABOBOKO EUSKALDUNAK (VENEZUELA). "CHIRGUA"
LARTITEGI ELORZA	IZASKUN	AITA DONOSTIA
URIBE-ETXEBARRIA APALATEGI	LUIS JESÚS	EAJ ASTEASUN
GIMÉNEZ BECH	JORGE	AGIRRE LEHENDAKARIAREN ERBESTEKO URTEAK
URIBE ELORRIETA	ARKAITZ	GERRA ZIBILEKO SENIDEAK. AITITE INGALATERRAN
STRIJBIS	OLIVER STEFAN	ALDERDI ABERTZALEEN HAUTESKUNDE MOBILIZAZIOEN KONPARAKETA
DECKERS	OLGA	EUSKAL HAURREN BELGIKAKO ERBESTALDIA
ETXEBARRIA ETXEITA	MIKEL	ARGAZKIA
AVIEJO ROSE	DACIA	KULTURA ETA HISTORIA ONDAREEN INTEGRAZIOA BAKE ETA ADISKIDETZE PROZESUETAN
AGUIRREMOTA PUJANA	DAMIÁN	CLAUDIO PUJANA IBARRA
HERNÁNDEZ MATA	AMELIA	EUSKAL UMEEN EBAKUAZIOA 70 URTE GEROAGO
BERAZATEGI MARTÍNEZ / DOMÍNGUEZ	IÑAKI / JAVIER	GERRA ZIBILA
NAVARRO ARANGUREN	MARYSA	VICENTE NAVARRO
ZABARTE LASUEN	GAIZKA	IÑAKI CASTET
PORSET	JEAN CLAUDE	JOSÉ LUIS PORSET
EGUINOA ISASMENDI	AITOR	GERNIKAKO BONBARDAKETAREN 70.URTEURRENA
DE SASIA ESTÉVEZ	ITZIAR	36KO GERRAN FRANTZIAN ERREFUXIATUTAKOAK

12.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA



12.1.- URTEKO BALANTZEA

Joan den 2006ko ekitaldian Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak, bere ahaleginetako asko bertako funtsen zati handi bat antolatzen erabili ditu; esan nahi baita: deskribatuta bakarrik baina oraindik katalogatu barik egon direnak; horretarako, deskribatzaile-fitxategia bat prestatu da, hurrengo batean thesaurusak egiteko balia dezagun.

Honako hauen inbentario exhaustiboa egin dugu:

- Eranskailu-bilduma: fitxategi bat egin da File Market aplikazioa baliatuta; bertan 4.500etik gora idazpen desberdin erregistratu dira, material errepikatuarekin erregistro paralelo bat gertatu izanaz

batera, eta, halaber, haietako bakoitza bereizmen handiko sistemaz digitalizatu da.

- Sakelako egutegien bilduma: fitxategi bat egin da File Market aplikazioaz; dagoeneko 3.500etik gora idazpen dauzkagu erregistraturik, material errepikatuarekin erregistro paralelo bat gertatu izanaz batera, eta, halaber, haietako bakoitza bereizmen handiko sistemaz digitalizatu da.
- Horma-irudien bilduma: 1.000 idazpen desberdin baino gehiago; gainera, haien irudiak argazkigintza digitalez atzeman dira.
- Argazki-artxiboa: 3.900etik gora irudi erregistratu eta identifikatu dira, gehienak gerra zibilaren garaikoak, eta argazki-albumetan instalatu dira, ph neutrodun azaletan gordeta, tamaina desberdinetakoak beroriek, irudi bakoitzari egokituta, alegia.
- Batailoietako zerrenden hustuketa: 30.000 idazpen desberdin erregistratu dira; datuak gudarien zerrendetatik eta batailoietako nominetatik atereak dira.
Informazio horrekin batera gudarien batailoien historialak egin dira; orain arte 91 bat idazpen daude gertatuta .

Lan horiek egin ahal izateko, 100 kontsulta baino gehiago eskatu dira goian deskribatutako inbentarioei buruz.

Museoak 2006an dohaintza-kopuru handia jaso du; dagoeneko inbentarioa egin zaie eta dagozkien euskarrietan instalatu dira gordailuen barruan; horrenbestez, material asko eta garrantzitsuak berreskuratu ditugu, gure pinakoteka nahiz funts higigarriak... ere gehitzea lortuz, Miren Petralandaren, Jose Antonio Agirreren ondorengoan eta besteren dohaintzekin, guztiak xedatu baitute euren senideen ondarea artatzeko, antolatzeke eta ezagutarazteko leku egokia Sabino Aranaren Euskal Abertzaletasunaren Museoa izan dadin.

Esparru horretan, halaber, gure eranskailu, egutegi eta horma-irudi bildumak handitzen ikusi ditugu, une hartara arte bildumazale zenbaitek artean Museoak ez zeuzkan hainbat legaturen dohaintzak egin baitituzte, gure dohaintza-egileen zerrenda ugaria ere handitzea ahalbidetu diguna.

Beste alde batetik, erakusketa ibiltariei dagokienez, nabarmendu behar da ezen, 2006an asko ere asko mugitu direla eta udalerrri askotan ikusi ahal izan direla;. Ibiltaritza handi horren oinarri, arloko aditu zenbaitek emandako hitzaldiak eta tailer didaktikoak izan dira, bisitaria, behatzera zihoan une historikoa testuinguruan ipintzeko balio izan baitute..

Manu Egileor Aretoan egiten diren aldi baterako erakusketei dagokienez, 2006an Museoak politika aldatu du eta urte osoan erakusketa bat edukitzea aukeratu dugu, ikastetxeetako curriculum-egitasmoei estaldura hobea eman ahal izateko, tailer didaktikoei erakusketa-eremuaren barruan emanaz testuingurua.

Hori dela-eta, areto horretan “Habla en cristiano” izeneko erakusketa ipini dugu Bilboko Euskal Museoaren, Trenbidearen Museoaren eta Euskal Eskola Museoaren laguntzarekin, erakusketarako materiala laga baitigute.

Ikastetxeek harrera ona egin diote gure proposamen berriari, ingurune horren barruan egindako ahozko tailer didaktikoen hizlariak kontatzen dituzten gertaeren garaitik hurbilago sentiarazten baitituzte gazteak.

Erakusketa horrek jakin-min handia sortu du gure bisitari askorengan, gure mugez kanpotik datozenengan batez ere, gaia ez delako oso ezaguna, baina ondo egituratuta eta aurkeztuta dago, haiek iruzkindu diguten bezala, bertan elkarte gehiagok parte hartzera heldu delarik.

Museoak jasotako bisitak asko gehitu dira 2006an. Horrenbestez, adibidez, eskola-garaiko hileetan bisitarik gehienak ikastetxeetako ikasleenak izan dira batez ere, askotan ahoz ematen ari garen historia-tailerrek eta Museoak berak “Bizkaitik Bizkaira” irratia-saioan duen parte-hartzeak animatuta.

Udako hileetan kanpoko talde eta pertsona asko etorri zaizkigu bisitatzera, gehienak leku hauetakoak batez ere: Katalunia, Galizia, Madril, Asturias, Valentzia, Toledo, Sevilla, Malaga, Kanariar Irlak, Amerika, Argentina, Norvegia, Polonia, Belgika, Ingalaterra, Alemania, Frantzia, Kroazia.

Museoa jendeari ireki genionetik bisitarik gehien izan dugun hila otsaila izan da. Hil horretan 430 pertsona izan genituen bisitari. Urte osoan 5.600 pertsonaren bisita jaso dugu guztira.

Urtarrila, otsaila eta urria izan dira talderik gehien etorri zaizkigun hileak. Gainera, baita kontuan izan behar ditugu ere, Euskadi osoan egin ditugun aldi baterako erakusketak bisitatu dituzten pertsona horiek guztiak, zeintzuk ez baitira zenbatzen Museoak guztira izandako bisitariaren artean.

Zaharberritzeen arloan, urte honetan luze-zabalera handiko mihise gaineko olio-pintura bat zaharberritu dugu. Bertan, motibo nagusi gisa, Euskadiren armarrria ikusten da osaera erdibitzen duen zuhaitz baten gainean, eta inguruan herri-irudiak.

Beste zaharberrikuntza bat, Antzuolako Batzokiko ekitaldi-aretoan oihalarena da; Simon Arrieta bergarar artistak egin zuen eta gerra aurretik egoitza jeltokian egiten ziren antzezlanak irekitzeko eta ixteko erabiltzen zen. Oihal horren berezitasuna da, jatorrizko irudian ikurrina zeramaten dantzari-bikote bat zuelarik, gero, Antzuolako karlistek berrukitu egin zutela: bateko, ikurrinaren gainean

bandera espainola irarri zuten eta, besteko, dantzariaren txapelari kolore beltza aldatu eta gorria ipini zioten.

Oso egoera txarrean zegoenez, oraindik ez da bukatu zaharberrikuntza-prozesua.

Bestalde, aldaketa egin dugu gure web orrian; orain modernoagoa da, informazioa hobeto egituratuta dago eta, Sabino Arana Fundazioaren mezuen bitartez, bisitariarengandik hurbilago egotea eta gure jardueren gaineko informazioa herritar gehiagorengana heltzea ahalbidetzen digu.

12.2.- LANKIDETZAK

- **“Orio Produkzioak”**

: “Julián Lekuona”ren diskoak laga zitzaizkien

- **“Digital Audiovisuales”**, “Diario de un gudari” izenburuko dokumentala egiteko.

Argazkiak eta elkarrizketak laga ziren.

- **“Baleuko”**, gerrari buruzko dokumental bat egiteko

Museoaren instalazioak eta pieza batzuk grabatu zituzten.

- **“Aranzadi Zientzia Elkarte”** Lauaxetari buruzko azterlan bat egiteko

Esteban Urkiagaren gaineko erakusketan eduki genuen materiala utzi zitzaien.

- **“Revista Euskal Etxeak”**, Jesus Galindezi buruzko artikulua bat

Galindezen irudi bat laga zitzaien “Haren heriotza edo desagertzearen 50. urteurrena” izeneko artikulua irudiztatzeko.

- **“Euskal Kirol Federazioen Batasuna”**, Euskadiko kirolari buruzko liburu bat argitaratzeko.

Museoaren erakusketa iraunkorraren irudiak laga ziren, Errusiara joan zen Euskadiko futbol-selekzioaren jakaren, galtzerdiekin...

- **“Svaliappress”** euskal abertzaletasunari buruzko erreportaje bat egiteko

Museoaren erakusketa iraunkorreko beira-arasa batzuk filmatu zituzten.

12.3.- TAILER DIDAKTIKOAK ETA JARDUERAK

- **URTARRILA**

Urtarrilaren 9tik 27ra

Tailer didaktikoa, "Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada" erakusketari atxikia.

1. Lehen Hezkuntzara zuzendutako tailerra (7-11 urte), Izenburua: "Berkak margotuz".

2. Bigarren Hezkuntzara zuzendutako tailerra (12-16 urte) Izenburua: "Eguneko albistea!!"

Tokia: Foru Artxiboko erakustaretoa. Bilbo.

Urtarrilak 24a

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertakariri buruzko zuzeneko lekukotasunekin. Lankide izan direnak: Jose Maria Otxoa de Txintxetru, "Kirikiño" batailoiko gudaria", eta Joseba Agirre Zabala, Jose Antonio Agirre lehendakariaren semea.

Getxoko San Nikolas ikastolak parte hartuta.

13:00etatik 14:00etara

Tokia: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako "Manu Egileor Aretoa"

Urtarrilak 26

Tailer didaktikoa, "Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada" erakusketari atxikia.

Bigarren Hezkuntzara zuzendutako tailerra (12-16 urte) Izenburua: "Eguneko albistea!!"

Tokia: Foru Artxiboaren erakustaretoa. Bilbo.

- **OTSAILA**

Otsailak 21

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertakariri buruzko zuzeneko lekukotasunekin. Lankide izan direnak: Joseba Verdes, klandestinitatean lan egin zuen, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoa berreskuratzeko atala. Durangoko "Fray Juan de Zumarraga" Bigarren Hezkuntzako Institutuak parte hartu du.

13:00etatik a 14:00etara

Tokia: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako "Manu Egileor Aretoa"

Otsailak 22

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertakariri buruzko zuzeneko lekukotasunekin. Lankide izan direnak: Esteban Urien, Belgikara erbesteratutako gerrako umea, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoa berreskuratzeko atala. Durangoko "Fray Juan de Zumarraga" Bigarren Hezkuntzako Institutuak parte hartu du.

13:00etatik a 14:00etara

Tokia: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako "Manu Egileor Aretoa"

Otsailak 23

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertakariri buruzko zuzeneko lekukotasunekin. Lankide izan direnak: Luis Zabarte, "Itsas Alde" batailoiko kapitaina, eta Iñaki Egaña, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoa berreskuratzeko atala. Lauro ikastolak parte hartu du.

13:00etatik a 14:00etara

Tokia: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako "Manu Egileor Aretoa"

Otsailak 24

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertakariri buruzko zuzeneko lekukotasunekin. Lankide izan direnak: Luis Zabarte, "Itsas Alde" batailoiko kapitaina, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa, memoria historikoa berreskuratzeko atala. Lauro ikastolak parte hartu du.

13:00etatik a 14:00etara

Tokia: Euskal Abertzaletasunaren Museoaren aldi baterako erakusketetarako "Manu Egileor Aretoa"

- **APIRILA**

Apirilak 23

Lore-eskaintza Matxitxakoko itsas gudua gogoratzen duen monumentuaren aurrean.

- **MAIATZA**

Maiatzak 17

“¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939”
Conferencia: 19:30etan “Leandro Barquin” izenburuko hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzaile diren Jimi Jiménezek eta Sabin Egiliorrek, emanda.

Tokia: Muskizko Kultur Etxeko hitzaldi-aretoan

- **IRAILA**

Irailak 14

¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939”

Hitzaldia: 19:30etan, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzaile den Lourdes Herraztik emanda.

Tokia: Iruneko batzokia.

12.4.- EGINDAKO ERAKUSKETAK

12.4.1.- "MISSING GALINDEZ. ASKATASUNEN ALDEKO BORROKALARIA. NEW YORK 1956" ERAKUSKETA

Jesus Galindez New Yorke desagertzearen 50. urteurrena oroitzen zelarik eta gertakari horri atxikita, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak "Missing Galíndez. Askatasunen aldeko borrokalaria. New York 1956" erakusketa paratu du; haren arduradunak Iñaki Bernardo eta Iñigo Camino izan dira. Inaugurazioa 2006ko azaroaren 22an izan zen Bilboko Euskal Museoan, non otsailaren 28ra arte egongo baita.

12.4.1.1. ERAKUSKETAREN GARAPENA

Jesus Galindez Suarez Euskadiren azken aldiko historiako pertsona nabarmenetakoen artean zer idatzi gehien eman dutenetako bat izan da, baina ez, hargatik, ezagunenetakoa.

Izaera ausartekoa izaki, bere legelari-prestakuntzak, literatura-zaletasunak eta abertzale eta demokrata izateak zapalduen aldeztaille-eginkizuna bereganatzera eramán zuten.

Zapalduak hala eskubide indibidualetan nola, nola kulturaletan eta kolektiboetan.

Euzkadiko Gobernuaren ordezkaria, kazetaria, abokatuá, publizista, eleberrigile eta olerkaria, baita Euskal Informazio Zerbitzuko eta FBIko agentea ere, izan zenaren giza eskubideen aldeko jarrera nabari horiek sakrifizio pertsonalera eramán zuten, hots: New Yorken bahitu eta gero erail, Dominikar Errepublikako diktadore eta Galindezen maiseaketen jomuga nagusia zen Rafael Leonidas Trujilloren aginduz.

Bisitariak historiak hain bidegabeki tratatu duen gizon horren zeregina ondo ezagutu lezan, hiru eremutan banatu dugu erakusketa.

1. New Yorkeko metroa iradokitzen duen geltoki bat

2. Aireportu bateko hangarra

3. FBIren langela

1. *New Yorkeko metroaren geltokia*

Erakusketara sartzeko metroaren ahoan hartutako irudi batean barrena egiten da; 57 kalean eta 8. Etorbidean dagoena, Greenwich Villageranzkoa, Jesus Galindez bizirik azken bider ikusi zuten lekua; atal honetako informazioa sasoi hartako publizitate-modu zenbait baliatuz ematen da.

Eremu honetan bisitarik entzungune bat du, garai hartako telefonoen bitartez desagertuei buruzko zenbait lekukotasun entzun ahal izateko, gehienak "Trujillo"ren garaiari buruzkoak.

4. Aireportu bateko hangarra

"Life" aldizkariak Galindezi buruz argitaratu zuen artikulua irudiztatzeko marrazkiaren bitartez sartzén da bisitaria eremu honetan, non informazioa hiru gaitan banatu baitugu:

- a) Galindez eta politika
- b) Galindez eta kultura
- c) Galindez espioitzan

Gutunak, dokumentu kodetuak eta beste gauza asko dauzkaten beira-arasez gain, ikuslea are sakonago joan ahal da, ezen ordenagailu bat ere badu eskura euskal informazio-zerbitzuen gaineko dokumentazio gehiago aurkitzeko.

3. FBIren langela

Jesus Galindez 1956ko martxoaren 12an galdu zen. Orduantxe hasi zen "Galindez kasua" deritzana. Harrezkero, milaka eta milaka informazio eta kontrainformazio orrialde idatzi dira gerra hotzeko desagertze-kasurik entzutetsuenetako baten gainean, eta esan daiteke oraindik ez dagoela dena argituta.

Horregatik ere, ez dago zalantzarik Rafael Leónidas Trujillok parte hartu zuela.

Eremu honetan bisitariak hainbat argitalpen ikusi ahalko ditu, Jesus Galindezek berak egindakoak ez ezik, beraren gainean editatu diren argitalpen, film, DVD... guztiak ere bai, baita Galindez kasuak FBI n sorrarazi zuen dokumentazio guztia ere, izan ere, horien arabera, Galindezen bahiketan eta erailketan eta ekintzen estalketan eta prestakuntzan, alde edo moldez, 35 lagunek parte hartu zuten, horietako 9, denak lekukoak edo laguntzaileak, erail ez zituztenak misterioski hil ziren.

Ordenagailu-postu biren bitartez Galindezen prentsa-artikulu guztiak ikusi daitezke, baita berak egindako gutunak eta txostenak ere.

12.4.2. "Ehun urte eta osasuntsu. Abertzaletasuna Durangon"

Erakusketa hau Durangoko Astarloa Kultur Taldeak eskatuta egin genuen, haren bidez elkarteak, orain dela 100 urte hiriko lehenengo batzokia sortu izana ospatu nahi baitzuen.

Erakusketa horren arduradun Roman Berriozabalek erakusketaren begirada Sabino Aranaren Durangoko jarraitzaileek ibilkatutako bide luze, malkartsu eta emankorrerantz zuzendu gura izan zuen. "Nori berea da gizalegea" dio euskal atsotitz zahar batek.

Erakusketa 2006ko azaroaren 2an inauguratu genuen Durangoko Arte eta Historia Museoa, non joan den abenduaren 3ra arte egon baita.

12.4.2.1. Erakusketaren garapena

Aretoan sartzan zen bisitariak Durangoko euskal abertzaletasunaren ehun urteko historia ikusi ahal zuen, gomutagarri egokia izanik oraingoak baino garai zailagoetan Durangoren onerako jardun zuten gizon eta emakumeentzat. Euren gogo-asmoen alde eta inori minik eragin barik jarduteagatik jazarpena, zigorra, espetxea eta heriotza jasan zituzten durangarrei egin genien gorazarrea izan zen,

durangar askoren historiaren zati bat izandakoa berreskuratuz, ohoratuz eta baloratuz.

Durangar orok izan zuen aukera, historia ofizialak urte ilun eta askoan zehar ostendu dizkigun kontu ugari ezagutzeko eta euskaldun eta euskaltzale apal eta ezezagun askoren berri izateko, baita behin baino gehiagotan gorputz-arima jardun zuten aurreko haiek mirestekoa eta berorien berri izatekoa ere.

Erakusketa egituratzeko, mende bete horretan zehar Durangoko batzokiaren aterpe izan diren eraikinak; hamar bat beira-arasatan ikusleak agiriak, gauzakiak, argazkiak... begiztatu zitzakeen. Material hori Abertzaletasunaren Agiritegi eta Museoarena ez ezik, hurrengo laguntzaile hauek utzitako funtsetakoa ere izan zen:.

- Gipuzkoako Artxibo Orokorra
- Durangoko Udal Artxiboa
- Durangoko Udala
- Bakoitzak ahal zuen apurtxoarekin durangarrei omenaldi txiki honetarako ekarpena egin gura izan zuten durangarrak.

Erakusketaren lagungarri, bertan ipinitako paneletan kontatutako historia modu zabalagoan jasotzen zuen foileto bat, bisitariak eraman zitzakeena.

12.4.3. "10 talaia 36ko gerrarako"

2006ko maiatzean, Gerra Zibilari buruz inauguratuko dugun erakusketaren zirriborroa eta lehenengo testuak egiteari ekin genion.

Ikerketa-lana ere egin ditugu zenbait egunkari, agiri, argazki, gauzaki... eta besteri buruz, erakusketaren arduradun Josu Txuekaren eskutik eta, halaber, Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Agiritegian artatutako hainbat agerkari sailean argitaratutako informazioa hustuz.

12.4.4.- ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

- Urtarrila

"Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada"

2005eko abenduaren 20tik 2006ko urtarrilaren 29ra

Foru Artxiboaren Erakustaretoa. Bilbo

"Sahara. Askatasun basamortua"

2006ko urtarrilaren 6tik 8ra

Kiroldegiko erakusketa-aretoa. EA

"Euskal artzainak Rio de La Platan"

2006ko urtarrilaren 12tik 31ra

Fray Diego Kultur Etxea. Lizarra

"Habla en cristiano"

2006ko urtarrilaren 24tik ekainaren 30era; birritan luzatu da sortu duen interesagatik, eta gaur egun ere badago 2007ko apirilaren 9ra arte.

"Manu Egileor erakustaretoa". Euskal Abertzaletasunaren Museoa. Artea Arratia

- Otsaila

"Euskal artzainak Rio de La Platan"

2006ko otsailaren 13tik 26ra
Gure Etxean dagoen erakustaretoa. Altsasu

- Apirila

"Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada"

2006ko apirilaren 5etik maiatzaren 7ra
Kultur Leioako erakustaretoa. Leioa.

- Maiatza

"Nunca más. Imágenes de guerra 1936-1939"

2006ko maiatzaren 5etik 17ra
Kultur Etxeko erakustaretoa. Muskiz

- Iraila

"Nunca más. Imágenes de guerra 1936-1939"

2006ko irailaren 3tik urriaren 15era
Irungo batzokia

12.5.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOARI DOHAINTZA EGIN DIOTENAK. SABINO ARANA FUNDAZIOA

Dohaintza-egileak 2006/12/31ra arte 1.311 izan dira guztira. Urte honetan 148 pertsonak lagundu dioten Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoari. Kopuru horretatik 45 dohaintza-egile berriak dira.

13.- AGIRITEGIAK ETA MUSEOAK IZANDAKO DOHAINTZA-EGILEEN ZERRENDA

AGIRRE, JUAN JOSÉ
AIZPURU MURUA, MIKEL
ALVAREZ ARANBURU, GORKA
ANASAGASTI, IÑAKI

ANGLADE BEASKOETXEA, BEGOÑA
ARANA LLORENTE, IGNACIO
ARKOTXA, JOSUNE
ARMENTIA, JUAN
ARRARTE, IÑAKI
ARRIEN MARINA, BEGOÑA
ARROITAJAUREGUI, JUAN M^a
ASTOREKA, IÑAKI
AZAOLA ARTOLOZAGA, IÑAKI DE
AZKORTAPE KULTUR TALDEA
BALZATEGUI RODRIGUEZ, RAFAEL
BAÑA, JUANJO
BARRUTIA, WENCESLAO
BENITO CASSINELLI
BEOBIDE, CHARO
BILBO ZAHARRA, BATZOKIA
BUJANDA ARIZMENDI, JOSÉ MANUEL
CAÑADA GARCIA, VICENTE
CASTAÑEIRA, ROSA
CONCEPCIÓN ZARAKONDEGI
DANEELS, DEBORA
DURAÑONA, ANAIK
EGURROLA, IÑAKI
EPELDE PORTILLA, JOSE ANTONIO
EREÑO ZORROZUA, ALIZIA
ESKUZA, JUAN ETA MIREN
FERNÁNDEZ GUTIÉRREZ, JOSEAN
GAINZA, LUIS ANGEL
GALARZA, ALBERTO
GARCIA LARRACHE, XAVIER
GARCIA URIBE, IÑAKI
GARÍN SÁINZ, M^a BEGOÑA
GAZTAM BIDE, MARY
GÓMEZ LAFUENTE, M^a BEGOÑA
GORRI, CLELIA EDITH
GOTI, GUILLERMO
JOSE ANTONIO AGIRRE LEKUBEREN ONDORENGOAK
IRAZABAL, JON
IRAZABAL PEREZ, LUIS
KINTANA UGARTE, JOSEBA
LARRONDE AGUERRE, JEAN-CLAUDE
LEANIZBARRUTIA, LOREA
LEGARRETA, JOSU
MAGUREGI, JOSÉ
MARDARAS, EMILIO
MATA SAN MARTIN, LEONARDO DE LA
MENDIZABAL, JOXEMARI
MORENO, RAFAEL

MORENO LOMBARDERO, JUAN MIGUEL
MURGOITIO ATXA, ENRIQUE
MUSKIZ, URI BURU BATZARRA
OLABEAGA BASURTO, BEGOÑA
OLANO, IÑAKI
OTALORA, GABRIEL
OTXOA DE TXINTXETRU, JOSE M^a
PADURA, IKER
PÉREZ ARROSPIDE, FRUCTUOSO
PETRALANDA, MIREN
PIEDRA, GABRIEL
PUJANA AJURIAGOGEASKOA, CARMELO
QUINTANA ARNÉS, CARLOS
RÉGIL RUIZ, JOSÉ MARÍA
RODRIGO REY, FELIPE
RODRIGUEZ ZARATE, M^a CARMEN
SÁNCHEZ MUÑOZ, SILVERIO
SARBAUGH, THOMAS
SASIA, EDURNE
SOGORB IMAZ, NATIVIDAD
SOLABARRIETA, GURUTZNE
TOBAR ARBULU, JOSEBA FELIX
UGARTE, R. AMAYA
URIBE ZUBIA DE SERRANO, MIREN ELIXABETE
URKIJO, ENRIKE
URKIZA, JULEN
URKULLU RENTERIA, IÑIGO
URRESTIETA, MIREN
URRETABIZKAIA BEJARANO, FAMILIA
YSURZA, JOHN M.
ZABALA SALEGUI, JOSÉ MANUEL
ZUBIAUR BUSTILLO, EDUARDO
ZUBIZARRETA TORRE, ESTIBALIZ

14.- 2006AN EGINDAKO JARDUEREN EGUTEGIA

Urtarrilak 19:

- *Prentsaurrekoa Sabin Etxean, 2005eko Sabino Arana Sariak jakinarazteko.*

Urtarrilak 29:

- 2005eko Sabino Arana Sarien urteko kultur jaialdia Bilboko Arriaga antzokian.

Otsailak 15:

- Juan M^a Atutxa, Antoni Vives eta Francisco Jorqueraren prentsaurrekoa Madrilen "Tribuna Galeuscat" aurkezteko.

Otsailak 20:

- "Gizarte-elkarrizketa. Etorkizuneko ildoak EBan" mintegia Bilboko Carlton hotelean; hizlariak izan ziren Ibarretxe lehendakaria, Joaquín Almunia, Anne-Marie Sigmund eta Joseba Azkarraga. MCCrekin eta CEPESekin (Gizarte Ekonomiaren Espainiako Enpresa Konfederazioa) elkarlanean antolatu zen.

Martxoak 9:

- "Cien momentos para la libertad" bildumaren aurkezpena Batzar Nagusien Bilboko egoitzan "Cien momentos para la libertad. Memorias de un Secretario de José Antonio Aguirre (1936-1949) liburuaren argitalpenarekin; Iñaki Anasagastik, Iñaki Durañonak eta Juan M^a Atutxak hitz egin zuten.

Martxoak 11:

- Lore-eskaintza eta jardueren egitarauaren aurkezpena Amurrion, Jesus Galindezen desagertzearen 50. urteurrenaren kariatara. Ekitaldiak Amurrioko Udalak antolatu zituen Sabino Arana Fundazioaren eta AVNIA Kultura Elkartearen laguntzarekin.

Martxoak 21:

- Sabino Arana Fundazioak ateratzen duen Hermes aldizkariaren 19. zenbakia argitaratu zen; aldizkariaren gai nagusia, "Euskal hiritar berriak".

Apirilak 4:

- Lauaxeta euskal idazle eta olerkariaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko paratutako erakusketaren inaugurazioa Leioako Kultur Leioaren erakustaretoan. "Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada" izenburuko erakusketa hori Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak eta Mungiako Udalak antolatua da. Inaugurazioan Karmelo Sainz de la Mazak (Leioako Alkatea), Jon Kortazarrek (erakusketaren arduraduna eta Euskal Literaturako katedraduna EHUn) eta Juan M^a Atutxak (Sabino Arana Fundazioko Lehendakaria) parte hartu zuten.

Apirilak 6:

- Mario Sznajder Jerusalemeko Hebrear Unibertsitateko Zientzia Politikoetako katedradunaren hitzaldia Batzar Nagusien Bilboko egoitzan, "Demokraziaren eta bakearen arteko paralelismoa Ekialde Hurbilean ez da benetakoa" izenburuarekin.

Apirilak 27:

- Eduardo Alonso Olea Deustuko Historia Garaikideko irakaslearen hitzaldia "Ekonomia Ituna, euskal autogobernuaren oinarria" izeneko hitzaldi-sortaren barruan. Lekua, Batzar Nagusien egoitza, Bilbon, eta hitzaldiaren izenburua: "Historia zirrargarria. Ekonomia Itunaren historia 1878tik gaur arte".

Maiatzak 2:

- Alberto Atxabal Rada Deustuko Unibertsitateko Finantza eta Zerga Zuzenbideko irakaslearen hitzaldia "Ekonomia Ituna, euskal autogobernuaren oinarria" izeneko hitzaldi-sortaren barruan. Lekua, Batzar Nagusien egoitza, Bilbon, eta hitzaldiaren izenburua: "Orainaldi oparoa: Zer da eta nola funtzionatzen du Ekonomia Itunak?"

Maiatzak 4:

- Bertso-paperen Lehiaketaren hirugarren aldiko irabazleen izenak jakinarazi dira. Lehiaketa Sabino Arana Fundazioak antolatzen du Euskal Herri guztiko eskola-umeentzat.

Maiatzak 10:

- Santiago Larrazabal Basañez Konstituzio Zuzenbideko irakasle eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendariaren hitzaldia "Ekonomia Ituna, euskal autogobernuaren oinarria" izeneko hitzaldi-sortaren barruan. Lekua, Batzar Nagusien egoitza, Bilbon, eta hitzaldiaren izenburua: "Etorkizun kezkarria: Ekonomia Ituna mehatxupean dago? Ekonomia Ituna "blindatu" daiteke?"

Ekainak 19:

- Sabino Arana Fundazioaren Hermes aldizkariaren bosgarren urteurrena ospatzeaz batera 20. zenbakia argitaratu da, bertako gai nagusia "Elkarrizketa eta gizarte-ituna" izan delarik.

Ekainak 20:

- "Cien momentos para la libertad" bildumako bigarren liburua aurkeztu da Bergarako Udaletxeko Osokoen Aretoan; liburuaren izenburua "Hombre libre sin patria libre. Memorias desde la resistencia vasca (1936-1980)" da eta Jokin Intzak idatzi du. Aurkezpenean Victoriano Gallastegik, Jokin Intzak, Iñaki Anasagastik eta Juan M^a Atutxak parte hartu dute.

Ekainak 22:

- Mintegia: "Ekonomia Itunaren beste erronka batzuk" Bilboko Nervion hotelean; hizlariak Idoia Zenarruzabeitia, Fernando de la Hucha eta Pedro M^a Larrea izan ziren.

Ekainak 27:

- La Habana Vieja Birpizteko Egitamu Maisuaren zuzendari Patricia Rodriguez Alomá arkitekto andrearen hitzaldia Batzar Nagusien Bilboko egoitzan; izenburua: “La Habana Vieja osorik birpiztea, nazioaren ardura”.

Ekainak 29:

- La Habana Vieja Birpizteko Egitamu Maisuaren zuzendari Patricia Rodriguez Alomá arkitekto andrearen hitzaldia Bergarako Aroztegi Etxean; izenburua: “La Habana Vieja osorik birpiztea, nazioaren ardura”.

Uztailak 5:

- “Grandes imperios, pequeñas naciones” liburuaren aurkezpena Madrilen, Espai Cultural Blanquernan, Tribuna Galeuscat-ek antolatutako ekitaldi batean eta Josep M. Colomer, Enric Juliana eta Juan M^a Atutxak parte hartuta.

Irailaren 2tik urriaren 15era:

- “Nunca más imágenes de Guerra” erakusketa Irunen.

Urriak 19:

- Eduardo Alonso Olea Deustuko Historia Garaikideko irakaslearen hitzaldia “Ekonomia Ituna, euskal autogobernuaren oinarria” izeneko hitzaldi-sortaren barruan. Lekua, Eusko Ikaskuntzaren hitzaldi-aretoa, Gasteizen, eta hitzaldiaren izenburua: “Historia zirrargarria. Ekonomia Itunaren historia 1878tik gaur arte”.

Urriak 26:

- Ignacio Zubiri EHUko Ogasun Publikoko katedradunaren hitzaldia “Ekonomia Ituna, euskal autogobernuaren oinarria” izeneko hitzaldi-sortaren barruan. Lekua, Eusko Ikaskuntzaren hitzaldi-aretoa, Gasteizen, eta hitzaldiaren izenburua: “Ekonomia Itunak azken 25 urteetan ekarri dituen ondorio ekonomikoak”.

Urriak 23:

- EBBk Sabino Arana Fundazioaren egoitza berria bisitatu.

Urriak 27:

- Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen Hermes aldizkariaren 20. zenbakia plazaratu da, “Ekonomia Itunaren beste erronka batzuk” duela gai nagusizat.

Azaroak 2:

- Santiago Larrazabal Basañez Deustuko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakasle eta Euskal Gaien Institutuko zuzendariaren hitzaldia “Ekonomia Ituna, euskal autogobernuaren oinarria” izeneko hitzaldi-sortaren barruan. Lekua, Eusko Ikaskuntzaren hitzaldi-aretoa, Gasteizen, eta hitzaldiaren izenburua: “Etorkizun kezkarria: Ekonomia Ituna mehatxupean dago Ekonomia Ituna “blindatu” daiteke?”.

Azaroak 9:

- “Ehun urte eta... osansutsu! Durangoko abertzaletasuna” erakusketaren inaugurazioa Durangoko Arte eta Historia Museoan.

Azaroak 16:

- Mintegia: “Bake-prozesua gaur: atzeraezinezko bihur dadin baldintzak”, Bilboko Sheraton hotelean, Ibarretxe lehendakaria, Julian T. Hottinger, Roelf Meyer eta Matteo Zuppi izan zirela hizlari.

Azaroak 22:

- “Missing Galíndez” erakusketa inauguratu Bilboko Euskal Museoan.

Azaroak 27:

- Mintegia: “Lurzorua eta etxebizitza, bizitzeko modukoak”; txosten-emaileak Javier Madrazo, Michael Ball, Borja Jauregi eta Patxi Sierra-sesumaga izan ziren.

Abenduak 7:

- “Galíndez: la tumba abierta” liburuaren aurkezpena Sabino Arana Fundazioaren egoitzan, Iñigo Urkulluk, Iñaki Bernardok, Iñaki Goioanak eta Juan M^a Atutxak parte hartuta.

Abenduak 7:

- Manuel Irujoren “Instituciones jurídicas vascas” liburuaren aurkezpena Durangoko Liburu Azokan. Argitalpen horretan Sabino Arana Fundazioak, Irujo Etxea Elkarteak eta Txalaparta argitaletxeak parte hartu dute elkarlanean.

Abenduak 14:

- Sabino Arana Fundazioaren web orri berria aurkeztu hedabideei.